

TOKIKOM

2021eko ekaina | 215. zenbakia

aitkor!

txorierriko aldizkaria



Alex Rico, pilotua
Ziztu bizian





Internet + telebista + mugikorra 5 GB

Zuntz optikoa: 300 MB / irrati-sistema: 50 MB

Mugikorra 5 GB + nahi adina dei / 3.000 minutu Estatuko telefono finko eta mugikorretara

70 telebista-kanal baino gehiago. Lehenengo urtean, % 100eko deskontua

39,90 €
Hilean BEZa barne

Internet + Mugikorra 15 GB

Zuntz optikoa: 300 MB / irrati-sistema: 50 MB

Mugikorra 15 GB + nahi adina dei / 3.000 minutu Estatuko telefono finko eta mugikorretara

70 telebista-kanal baino gehiago. Lehenengo urtean, % 100eko deskontua

44€

Hilean BEZa barne

Internet + bi mugikor

Zuntz optikoa: 300 MB / irrati-sistema: 50 MB

Mugikorra 15 GB + mugikorra 5 GB + nahi adina dei / 3.000 minutu Estatuko telefono finko eta mugikorretara

70 telebista-kanal baino gehiago. Lehenengo urtean, % 100eko deskontua

54€

Hilean BEZa barne

946 941 000 / nexis@nexis.es

Euskal operadore alternatiboa

Nexis, etxeko telekomunikazio-enpresa

Telekomunikazio-enpresa da Nexis, Txorierrikoa, eta edozein operadore moduan, deneriko zerbitzuak eskaintzen ditu: telefonia finkoa eta mugikorra, Internet eta telebista. Are gehiago: bezeroen beharrezanetara egokitzen dira eta zerbitzuak banan-banan eskaintzen dituzte, erabiltzaileek bakarrik benetan behar dutenagatik ordain dezaten. Gainera, beste batzuk ailegatu ezin diren lekuetara heltzen dira, zuntz optikoa ez ezik irrati-loturako sistema ere erabiltzen dutelako telefonia- eta Internet-konexioetarako.

Eskarmentu handiko enpresa da Nexis, izan ere, 2002. urtean eratu zen Sondikan. Informatika-konponbideak eskaintzen zizkieten enpresei, baina laster konturatu ziren enpresa horiek telefonia eta Internet arloetan zituzten beharrezanez, eta euren teknologia hobetu zuten, zerbitzua edozein txokotan eman ahal izateko. Horrela, goi-mailako irrati-loturako sistemari esker, telefonia eta Internet landa-eremuko ia gune guztietara eramateko gauza dira.

Zerbitzua ematen dute landa-eremuetan, inguru sakabanatueta eta herrietan zein hirietan. Gainera, zuntz optikoa dute Txorierri osoan. "Telekomunikazio-operadore bat gara eta edozein operadore dituen lizentzia berberak ditugu. Hortaz, zerbitzu berberak eskaintzen ditugu: telefonia finkoa zein mugikorra, Internet eta telebista, 4G eta 5G teknologia erabilita". Kalitateko zerbitzua ematen diete enpresei zein partikularrei, berme guztiak dituen. Bestalde, ohiko operadoreetatik bereizten dira, alde batetik, eskaintza pertsonalatuengatik, eta bestetik, tratu hurbilagatik.

Zerbitzua ematen dute landa-eremuetan, inguru sakabanatueta eta herrietan zein hirietan

"Guk zerbitzuak banan-banan eskaintzen ditugu, eta bezeroek bakarrik behar dutena kontratatzen dute, baita bakarrik benetan erabiliko dituzten gigak edo megak ere. Halaber, ez dute inoiz sorpresarik izango fakturretan, beti ordainduko dutelako prezio bera: hasieran zein kontratua egin eta handik sei hilabetera. Nolanahi ere, jakina!, packak ere baditugu horrela

Zintzotasuna eta hurbiltasuna dira Nexis telekomunikazio-enpresaren identitate-zeinuak

nahiago duten bezeroentzat". Zintzotasuna eta hurbiltasuna dira Nexis telekomunikazio-enpresaren identitate-zeinuak. "Bezeroen izenak dakizkigu, eta gurera deitzen dutenean, pertsona berberekin hitz egiten dute beti. Hortaz, enpresako langile guzti-guztiak dakite bezeroek zer nahi duten. Ahalegin handia egiten dugu ahalik eta kalitate handieneko zerbitzua emateko, eta matxurarik badago, hura ahalik eta azkarren konpontzen dugu. Batzuetan gerta daiteke matxura egun berean konpondu ezin izatea, baina bezeroei beti esaten diegu egia, eta hurrengo egunean konponduko dugula agintzen badiegu, hurrengo egunean konponduko dugu".

Konfiantza

Hurbiltasunak lantaldean du isla, Nexiseko zazpi langileak txorierritarrak direlako. "Txorierritarron gaitasunetan dugu konfiantza". Eta Nexisen ere konfiantza handia dute era askotariko partikularrek eta enpresek, Txorierrikoek nahiz Bizkai osokoei eta inguruko probintzietakoek, hala nola Burgosekoek, Kantabriakoek eta Asturiasekoek. "Gakoak dira bezeroei modu hurbilean hitz egitea eta zintzoak izatea. Horri lotuta, zerbitzu pertsonalatu ematen dugu, bezeroen beharrezanetara egokitzeko. Bakarrik benetan behar dutena saldu nahiago dugu, eta pozik egon daitezela". Azkenik, etengabeko ikastea eta ikerketa ere ikur dituzte.

Nexis, beraz, etxeko telekomunikazio-enpresa da, hurbila eta konfiantzazkoa. Bezeroen beharrezanetara kontuan hartuta, zerbitzurik onena emango die beti, sorpresarik gabe eta berme guztiak eskaintzen dituela, landa-guneko biztanleak zein herrietakoak konektatuta egon daitezela.



-  **5** Eretxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Itxialdia
-  **12** Gurean izan da... Urbil Artola, musikaria
-  **14** Gaztea eta... Irati Ortiz de Anda
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Eaton itxita
-  **20** Alex Rico, pilotua
-  **24** Loiuko eskola
-  **26** Soziolinguistika
-  **28** Kirol-garaipenak
-  **30** Gure merkatariak
-  **31** Zu argazkilari
-  **32** Herbarioa
-  **33** Emaus Gizarte Fundazioa
-  **34** Teknologia
-  **35** Aikorrizketa
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Urbil Artola



24 Loiuko eskola



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Alex Albarran, Eder Merino, Alaia Saenz, Gaizka Peñafiel, Itsasne Zubiri, Ixone Ledesma, Guiomar Gordon, Joxe Mari Lekerika, Keko Alonso, Xabier Diaz eta Jose Angel Mentxaka

Portadarako argazkia: Alex Albarran

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Iratxe Pirla

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Obedientziaren arriskuak

Gutxitan aipatzen ditugu emakume filosofoak eta askotan ahazten ditugu emakume pentsalari handiak, esaterako, Hanna Arendt. Bena interesgarria da obedientziaren eta ikuspegi kritikoaren inguruan egindako lana, batez ere, bai teoriarik, bai praktikan jarrera filosofikoaren eredu bihurtu zelako.

The New Yorker aldizkariak Hanna Arendt aukeratu zuen Adolf Eichmann Alemania Naziko SSetako goi-mailako ofizialaren aurkako epaiketaren berri emateko, baina bere lana ez zen gertakariak kontatzera mugatu.

Eichmann Holokaustora eramaten zituzten preso deportazioaren ardura izan zenez, gehienek munstroztat, izaki "anormaltzat" hartu zuten, baina Arendtentzat sistemako eta sistemaren aldeko langile bat besterik ez zen izan. Bere lana bete zuen, obeditu egin zuen, jasotzen zituen aginduak zalantzan ipini

gabe. Eichmannek berak ere arrazoi horregatik bere burua errugabetzat jo zuen.

Arendten ustez, pertsona batzuek edozein motatako arau eta aginduei men egiten diete; nahiz eta oso injustuak izan, ez dituzte zalantzan jartzen. Betetzeaz arduratzen dira eta ez dituzte ondorioak kontuan hartzen. Hortaz, ez dute uste erantzukizunik dutenik, ez dira beren ekintzen erantzuleak sentitzen. Arendtek teoria horri "gaitzaren hutsalergia" deitu zion.

Asko kritikatu zuten, Eichmannen jo-kaera ulertzen eta azaltzen saiatu zelako, baina hiru hilabete beranduago, Stanley Milgramek, Yale Unibertsitateko psikologo batek, "obedientziaren arriskuak" deitutako esperimendu baten bidez bere teoria berretsi zuen. Esperimendu horren bidez erakutsi zuen parte hartu zutenen % 60k baino gehiagok nahiago zutela ezezagun bati min fisikoa egin, desobeditu baino. Izan ere, autoritatearekiko



ALAI SAENZ ORBE
Filosofia irakaslea

obedientzia gure kontzientziaren gainetik ipini ohi dugu.

Zenbat astakeria egitera iritsi gaitzeko arrazoia, kritikotasuna... baztertzeko ditugun estrategiak bezala, gure istorioak aski desberdinak dira. Ondorioz, oso modu desberdinetan eta leku anitzetatik bizi izaten ditugu emozioak. Kudeaketa egokiaren aitzakiaz gure istorio pertsonalak alde batera uzteak pribilegiadunak saritu eta sistema bermatzen du.

Eta bai, sarri, bizitza oso injustua da, karma ez da existitzen, ereiten dena ez da beti jasotzen, eta, nahiz eta pertsona ona izan, indarkeriak pairatzen dituzu. Horregatik, zirraren kudeaketa lantzeaz gain, ezinbestekoa da kontzientzia eta ikuspegi kritikoa jorratzea borrokatutakoa ez zurrizko eta oreka, justizia eta bakea eskaintzeko.

Borrokatutakoa jaso

Bizitzan ereiten dena jaso egiten da. Sarri entzun dugu patuak ontasuna saritzen duela, karmak nor bere lekuan ipintzen duela eta negar egin beharrean irri egin behar dela... Edo ez.

Azkenaldian zirraren kudeaketak bere espazioa eta garrantzia eskuratu du, eta profesionalak balibideak eman dizkigute daramagun zama arintzeko. Txalotzekoa. Baina, maiz, emozioen irakaskuntzaren atzean pribilegioa ezkututzen da: gure istorio pertsonalek, bizipenek eta zauriek zer garen islatzen dute, eta zirrara egokiaren kudeaketaz gidaliburu bat sortu nahi izateak gure borroka homogeneousatu eta ezeztatzen ditu.

Jasandako indarkeriek hezi eta hazi gaituzte eta hatz-marka legez gurekin dara-



EDER MERINO
Irakaslea

matzagu. Halaber, guztiok ez dugu oinarri berbera, lurra ez dugu berdinean zapaltzen, eta, sistema honetan bizirauteko garatu ditugun estrategiak bezala, gure istorioak aski desberdinak dira. Ondorioz, oso modu desberdinetan eta leku anitzetatik bizi izaten ditugu emozioak. Kudeaketa egokiaren aitzakiaz gure istorio pertsonalak alde batera uzteak pribilegiadunak saritu eta sistema bermatzen du.

Eta bai, sarri, bizitza oso injustua da, karma ez da existitzen, ereiten dena ez da beti jasotzen, eta, nahiz eta pertsona ona izan, indarkeriak pairatzen dituzu. Horregatik, zirraren kudeaketa lantzeaz gain, ezinbestekoa da kontzientzia eta ikuspegi kritikoa jorratzea borrokatutakoa ez zurrizko eta oreka, justizia eta bakea eskaintzeko.


tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
ecarta **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

GORBEIA MERTZERIA



Gorbela kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrikortasun doan

—Especialitateak:
umeak

Unibe 7, Behea
48160 DERIO (Bizkaia)

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5 Tlf. / Faxa:
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotsuak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Lezamak urriaren 3an ospatuko du Txakolinaren Eguna



Txakolinaren Eguna ekaineko lehenengo domekan ospatu ohi da Lezaman; hala ere, COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, hango udalak erabaki du aurtengo edizioa urriaren 3an egitea. Jon Ander Aurrekoetxea alkateak adierazi duenez, "beste sektore batzuk moduan, gure upeltegiak, eta lehen sektorea orokorrean, oso une korapilatsua bizitzen ari dira; horregatik, oso garrantzitsua da Txakolinaren Egunaren XIX. edizioa ospatu ahal izatea".

"Osasun-egoeraren ondorioz, ezin izan genuen iaz hitzordu berezi hau gozatu, baina aurten, ohi baino berandua go bada ere, herriko txakolinik onenak eta nekazaritza-produktuak dastatzeko aukera izango dugu, osasun- eta segurtasun-neurri guztiekin, Bizkaiko Txakolinaren Lezamako upategiak bultzatzearekin batera", gaineratu du Aurrekoetxea.

Lezamako Txakolinaren Egunaren XIX. edizioa ekainaren 4an aurkeztu zen

herriko Kultur Etxean. Ekitaldian batu ziren, besteak beste, Arantza Atutxa Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko sailaren zuzendari nagusia, Txorierriko alkate batzuk, Asier Dañobeitia sommelieria, Jon Enbeita bertsolaria eta herriko txakolingileak: Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde, Larrabe eta Magalarte upategiak hain zuzen ere. Ekitaldia Pedro Mari Goikoeetxea kazetariak zuzendu zuen.

Zozketa egin zen erabakitzeko Txakolinaren Egunean zein txakolin erabiliko den txotx egiteko, eta Erdikoetxe atera zen. Dañobeitiak upategiaren txakolina dastatu, eta berari buruz esan zuen txakolin gastronomikoa dela eta dastatzen duenean Lezaman dagoela sentitzen duela. "Aurreko urteetako txakolinak garrantzagoak izan dira; txakolin hau lagunduta arraina, itsaskia zein gilda bat dastatuko nuke. Txakolingileak zoriontzeko moduko produktua da".

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Arkaitz Esteban da ekaineko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birezako bazkaria jasoko du sarritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Derioko umeek eta gaztetxoek ere izango dute aurrekontuetan parte hartzeko aukera

Derioko Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesu berria hasiko du datorren astean, eta, berrikuntza moduan, zazpi urtetik 16 urtera bitarteko umeek eta gazteek ere ekarpenak egin ahalko dituzte. Ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitartean, udalak herritarren proposamenak batuko ditu 2022ko kontuetan sartzeko. Orotara 120.000 euroko diru-partida gorde du herritarren proposamenei erantzuna emateko.

Udalaren eta Derioko Umeen Kontseiluaren arteko elkarlanak ahalbidetu du zazpi urtetik 16 urtera bitarteko umeek eta gazteek aurrekontuen prozesuan parte hartzea. Udalak gutun pertsonalizatu bana bidali die beren ideiak ezagutzera ematera animatzeko. Gutunarekin batera jaso dute fitxa bat eta han izen-abizenak eta jaiotze-data adierazi beharko dituzte. Fitxa hori beteta, irailaren amaieran egingo den boztazioan parte hartu ahalko dute.

Bestalde, eta gainerako derioztarrei dagokionez, herrian erroldatutako 16 urtetik gorako edonork izango du prozesuan parte hartzeko aukera. Prozesuaren lehen fasean, uztailaren 23ra arte, herritarren proposamenak batuko dira. Proposamenak Gertuan herritarrentzako arreta-zerbitzuan edo Kultur Birikan aurkeztu ahalko dira, leku horietan dauden inprimakiak beteta; www.deriokoudala.net webgunearen bidez; edo inprimakia deskargatu, eta partaidetza@deriokoudala.net helbide elektronikora bidalita. Bigarren fasean, uztailaren 26tik irailaren 17ra, proposamenak



bideragarriak diren aztertuko da, eta irailaren 22an proiektuen zerrenda argitaratuko da udal-webgunean eta udalaren iragarkitaulan.

Proiektuak irailaren 27tik urriaren 1era bitartean bozkatu ahalko dira udal-webgunean. Nolanahi ere, beharrezko ezagutzarik edo baliabiderik ez dutenek Gertuan bulegora edo Kultur Birikara jo ahalko dute, eta hango langileen laguntza jaso. Botazioaren emaitza urriaren 15ean jakinaraziko da udal-webgunean eta udalaren iragarki-taulan.



aikor!
txorierriko aldizkaria

Iragarkia gurean ipintzeko:

688 782 642

publi@aikor.com

Atletismoa Zamudion

Beste Bira Loiu klubak jakinarazi duenez, akordioa egin du Zamudioko Udalarekin eta akordio hari esker zabalduko dute eskola udalerrri horretara. Horrela, bada, udalak atletismo-pista utziko diete entrenamenduak han egiteko. Datorren ikasturterako izena ematea zabalik dago jada bost urtetik gorako atletentzat. Informazio gehiagorako: 609 417 996 edota lenai123@yahoo.es.

Jubilatuen etxea berritzeko lanak hasi dira Loion

Josu Andoni Begoña Loiuuko alkateak bere webgunean adierazi duenez, hasi dira jubilatuen etxea berritzeko lanak. Bere hitzetan, 20 urteren ondoren, egoitza berritzeko beharra zegoen eta, gainera, jubilatuek eurek eta herritarrek hala eskatu dute. Pandemia-egoeraren ondorioz, egoitza itxita dagoela aprobetxatu du udalak berritze-lanak egiteko eta espero du horiek udako oporren ostean amaituta egotea.

Egoitza oso-osorik berrituko da eta proiektua diseinatzeko orduan jubilatuen zuzendaritza-batzordearen ekarpenak hartu dira kontuan. Egoitzaren berritze-lanekin batera, jubilatuen etxeko tabernaren estiapen-eskubidea esleitzeko kontratazio-prozedura ere hasi du.



Merkataritzarako eta ostalaritzako ingurumen-jardunbide egokien gida argitaratu du Derioko Udalak

Derioko Udalaren esanetan, merkataritza jasangarria eta ingurunea errespetatzen duena sustatzea bat dator bere ingurumen-konpromisoarekin. Horri lotuta, Merkataritzarako Ingurumen Jardunbide Egokien Gida argitaratu du. "Dokumentuaren helburua da baliagarria izatea tokiko enpresa txiki eta ertainetarako, eta horretarako, jardunbide egoki errazak eta merkeak proposatzen dizkie. Jardunbideak baliagarriak izan daitezke berehalako emaitzak eta errentagarritasun handia lortzeko, eta ez dute negozioen ohiko jardueran eraginik", azaldu du.

Jardunbide egokiak ezarri, eta helburu haiek lortu nahi dira: era guztietako energia-baliabideen kontsumoa murriztea, hondakinen gutxiago sortu eta haiek

berriro erabiltzea erraztea, kostuak murriztu eta negozioak lehiakorragoak izatea, ingurumenari lotuta enpresei buruz dagoen irudia hobetzea eta herritarrak sentikor bihurtzea ingurumenarekiko.

Txorierriko Politeknika Ikastegiko Ingurumenaren Hezkuntza eta Kontrolleko bigarren zikloko ikasleek diseinatu dute gidaliburua, udaleko Ekonomia Sustatzeko Arloak babestutako lankidetzaproiektu baten baitan. DerioCom merkatarien elkarteak ere hartu du parte proiektuan. Gidan, zortzi jardun-arlo bereizi dira: ura, energia, garraioa eta biltegiatzea, hondakinak, zarata, lokala eraikitzea eta hornitzea, garbitzea eta mantentzea eta komunikazio jasangarria. Gidaliburua datozen egunetan banatuko da dendetan, tabernetan eta jatetxeetan.



ArtileArtean
Mungialde. 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA
Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Zuhaitzak berritzeko egitasmoa Larrabetzun

Zehatz-mehatz, Errekondo kaleko zuhaitzak berritu dira eta egitasmoan parte hartu dute eskolako umeeek, Gym Berdeak eta Besaia enpresak. "Horrela, ekintzaren balio hezitzailea aprobetxatu dugu, eta herri moduan proposatu dugun edertze-prozesuan dabiltzan herri-tarren kopurua handitu", azaldu du Larrabetzuko Udalak.

Udalak jakinarazi duenez, egitasmoaren lehen urratsa izan da hutsik zeuden kaleko txorkoak garbitzea. Ondoren, zuhaitz berriak landatu dituzte. "Hasiera batean pentsatu genuen logikoena izango litzatekeela txorko horietan ere gainerako txorkoetan zeuden espezie bereko aleak landatzea; hala ere, espezie hori Txinako eta Japoniako arbustu inbaditzailea da, eta horregatik erabaki genuen espezie horretako ale guztiak kendu eta haien ordez tokiko zuhaitzak landatzea: orotara 23 otsalzar eta urki ipini dira". Udalaren esanetan, aurreko lerroetan aipatutako arbustu inbaditzailea "naturali-

zazio kezkarria azaltzen ari da, bereziki gure erreken ertzetan". Espezie horren hedapena gelditzeko, udalak pixkanaka-pixkanaka ordezkatuko ditu aleak, eta euren ordez espezie autoktonoak edo aloktonoak ipini.

Auzolanera deitu

Zubitalde parkea berritzen dabilta Larrabetzuko Umeen Kontseilua, Gym Berdea, Besaia lorezaintza-enpresa eta

udala. Besteak beste, berdegunea handituko da; tirolina, mahaiak eta aulkiak ipiniko dira; enborrak era zurezko materialak jolas-eremu moduan jarriko dira; zuhaitz eta lore gehiago landatuko dira; eta katuentzako babeslekua egingo da. Lanak direla eta, auzolanera deitu dute uztailaren 7rako, 16:15etik 19:30era. Parte-hartzea konfirmatzeko, telefono-zenbaki honetara deitu behar da: 699 739 851.



Ordainketa-sistema kamioi handietarako



Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko diputatuak proposamen hau egin du Bizkaiko Batzar Nagusietan: erabileragatiko ordainketa-sistema bat martxan jartzea, 3,5 tonatik gorako kamioi handiak ahalmen handiko bideak erabiltzera bultzatzeko. Bere esanetan, European dagoeneko ezarritako sistema eraginkorra da eta "gaur egun Txorierriko igarobidean eta N-240 eta BI-625 errepideetan gertatzen diren ondorio negatiboak murrizten lagunduko du. Era berean, lagungarria

izango da CO2ren isuriak murrizteko eta bide-sarearen segurtasuna hobetzeko".

Proposamenak aurrera eginez gero, kamioi handietarako kontrol-arkuak ipiniko lirateke Txorierriko igarobidean eta hurrengo errepide hauetan: N-240, BI-625, N-636 eta A-8. Kontrol-arkuek dituzte free-flow sistema, zirkulazioaren detektagailuak eta ibilgailuak identifikatzeko sistema, eta horiei esker ez da beharrezkoa trafikoa gelditzea kanona ezartzeko.

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

ZAMUDION BERTAN GAUDE

BAIRES
Higienizazioa eta ingurumen-garbitzeta

Alberto Gainza:
691606715

info@baires.org.es
www.baires.org.es

CuboFit erabiltzeko izena ematea Loiu

Uztailen, abuztuan eta irailean CuboFit edo aire zabaleko gimnasioa ipiniko da Zabalotxeko landan, herritarrek naturan entrenatu ahal izateko. CuboFitentzako izena ematea uztailaren 1etik 7ra bitartean egin behar da udaletxean. Bestalde, irailean berriro zabalduko da izena emateko epea, 2021-2022 ikasturteari begira. Besteak beste, hauek egongo dira aire zabaleko gimnasioan: barra olinpikoak, kukubilkatzeak egiteko aparatua, harea-zakua eta gora egiteko soka. Entrenamendu-saioek 45 minutu iraungo dute.



“Nire ordainketa” pasabidea erabilgarri Zamudion

Herritarrei zergak ordaintzea errazteko, Zamudioko Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzaren “Nire ordainketa” ordainketa-pasabidearekin. Plataforman udalaren webgurutik bertatik sartzeko aukera dago eguneko 24 orduetan. Bestalde, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea ekainaren 15etik uztailaren 30era arte izango da zabalik, eta, hortaz, ohiko bidez gainera, ordainketa Eusko Jaurlaritzako plataformaren bidez ere egin ahalko da.

Utxabasoren deskontaminazioa ziurtatzeko egitasmoa



Larrabetzuko Udalak azaldu duenez, garbitze- eta atontze-lanak egiten ibili dira Utxabaso basoan. Hala ere, lanak bertan behera utzi behar izan dituzte, zeren eta Eusko Jaurlaritzak jakinarazi baitie lurzorua kutsatuta egon daitekeela. “Hori dela eta, egitasmoan ezarritakoa egin daitekeela ziurtatzeko, egin beharreko lanak egiten ari gara gaur egun”. Udalak 12.000 euroko proiektua ipini du abian gunearen deskontaminazioa ziurtatzeko eta dirulaguntza berezia ere eskatzeko asmoa du. Deskontaminazio-ziurtagiria udazkenerako lortzea espero da, eta egitasmoak aurrera jarraitu ahal izatea.

Utxabaso Berresogane eta Sasine artean dagoen baso txikia da. “Baina haren eremua eta ibaiertzeko basoek (haltzadiak) hartzen dituzten areak lotuz gero, Larrabetzuko baso-azalera handienetako bat osatzen dute”, azaldu du udalak. “Ez da sasoi ona basoentzat, ezta gure udalerrian ere: ia 1.400 baso-hektarea daude, baina pinuek eta eukaliptoek ia 1.100 hektarea hartzen dituzte. Gainera, eukaliptoak oso azkar dabilta pinuak ordezkatzen. Bertoko basoari dagokionez, bestalde, tamaina txikiko arboladi gazteak dira eta zati batean sasiakaziak eta beste espezie inbasore batzuk daude”.

Udalaren esanetan, duela urte batzuk Gym Berdea egitasmoak lagunak eremu horretan zuzaitzak landatzen hasi ziren, Iruri Erreka inguruan ibaiertzeko basoa zabaltzeko. Era berean, iaz bizilagun batzuk ibili ziren bertan, besteak beste, iturri bat zaharberritzen eta bideak garbitzen. “Topaketa horretatik sortu zen Utxabaso proiektua. Helburuak dira biodibersitatea berreskuratzea eta basoan egoteko aukera ematea. Kontua da paseatzera, korrika egitera, jolastera, jatera, irakurtzera... etortzeko basoa lortzea, etxetik hurbil eta autoa hartu behar barik”.

Proiektua aurrera eramateko, udalak Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu zion 2020ko irailean eta hori jaso zuen. “Garbitze-lana selektiboak egin dira, bideak atundu, hesiak kendu, eta ia deforestatutako eremu osoa landatu da. Txondor bat erakitzeko lanak ere hasi dira”. Eusko Jaurlaritzaren iragarpenaren eraginez, egitasmoa bertan behera utzi behar izan da; hala ere, udalak espero du deskontaminazio-ziurtagiria udazkenerako lortzea eta lanek jarraitu ahal izatea. “Biodibersitatea berreskuratzea ahal izateko, espezie inbasoreak desagerraraziko dituzten hainbat esku-hartze egingo ditugu: anfibioen putzu bat, habia-kutxak hegazti intsektujaleentzako, hegazti harriarientzako eta saguzarrentzako...”.



Zure taxi,
Teoriarikoa


Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



PATXI
KOOP

FATXI KOOPERATIBA ELKARTEA

Herritarrekin batera | Berruzte 4, 01171 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 94 480 10 10 | www.patxi.org

Orrialde honetan, konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu Itsasne Zubiri sondikoztarrak.



Bizi garen gizartean zirkuaren ikusleak zein partaideak izan gaitzke, baina zirkuaz nekatuta bazaude, irudimena erabiltita jokatu, aukeratu, hausnartu eta bidea egin! Troia berri baten zain.

ERREKA LONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./FAXa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregeandik gertu

AHOIKULARITZA - TASAZIOA
ALDKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROR BILBAOAREN AGENTZIA

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



ZAMUDIO Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Bizkaia

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

SANTI MAMI
ALABARTARRITZA

Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215

10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

“Garai bateko jendarte batengana ailegatu ginen: pozik egoteko arrazoia da”

URBIL ARTOLA | musikaria

Sorotan Bele Gogoan egitasmoaren lehen emanaldia maiatzean izan zen Larrabetzun. Agertokira Gorka Sarriegi eta Urbil Artola taldekide ohiak azaldu ziren Andres Isasi Musikalia bandaren musikariek batera. Saio bi egin ziren eta bietan oso momentu hunkigarriak bizi izan zituzten musikariek zein publikoak.

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Zein izan da egitasmoaren abiapuntua?

Xabier Zabala musikariaren ideia izan zen. Herrietako haize-bandekin lanean dabil azken urteetan eta Gorkarekin ere lan egin du inoiz. Proposamen hau egin zion: Sorotan Beleren lehen diskoaren abestiak hartu, banda horiek abestiak jotzeko moldaketak egin eta bandekin batera zuzeneko emanaldiak eskaini. Egitasmoa mugitzeko, Baga Biga enpresarekin ipini ziren harremanetan eta momentu batean erabaki zen zuzeneko emanaldietan parte hartzeko gonbita beste taldekide ohi bati ere egitea, neuri hain zuzen ere. Egitasmoaren helburua da Sorotan Bele izan zena oroitzen gisa jendeari berriro ekartzea, baina ez da inondik inora taldearen itzulera; hori argitu beharra dago, gaizki-ulertuak egon dira eta.

“Helburua da Sorotan Bele izan zena oroitzen gisa jendeari berriro ekartzea, baina ez da inondik inora taldearen itzulera”

Zer pentsatu zenuen proposamena egin zizutenean?

Bada, ez nuen espero, ze Sorotan Bele esperientzia ederra izan zen, baina urte asko pasatu dira eta erabat alde batera utzita izan dut buruan. Gainera, azken urteetan hainbat taldetan jotzen nabil eta, hortaz, musika-esparruan pozik nago, ase. Sorpresa izan zen eta, egia esan, hasiera batean ez nintzen animatu; hala ere, egun batzuetan ibili nintzen ideari



bueltaka, eta azkenean esan nuen: zer-gatik ez?

Egitasmoaren lehendabiziko emanaldia Larrabetzun egin zenuen; hainbat arrazoireratik izan zen berezia, ezta?

Bai. Lehenengo eta behin, Sorotan Beleren lehen zuzena bertako Hori Bai gaztetxean egin genuelako duela 30 urte-edo. Sei abestik osatutako maketa bat baino ez genuen eta abestiak behin eta berriro jo behar izan genituen ordubeteko kontzertua egin ahal izateko (kar-kar). Bestalde, ikusleek hasiera-hasieratik azaldu zuten jarreragatik ere izan zen hunkigarria. Guk banekien berezia izango zela, baina agertokian bertan egon arte ez zara benetan ohartzeko egoeraren dimentsioaz. Muntaiari dagokionez, banda agertokira ateratzen da lehenen, eta abesti instrumental bat jotzen du; jarraian, etenik gabe, “Arratsalde honetan” abestia hasten da eta Gorka eta biok agertokira irteten gara abesten hasteko. Bada, momentu horiek agertokiaren atzealdetik, izkina

batetik, bizi izan genituen eta oso hunkigarria izan zen jendea txaloka zegoelako, zutik... Gero atera ginen eta egundokoa izan zen, oso inpaktu handia. Emanaldi bietako ikusleek dena eman zuten eta, egunez zenez, aukera izan genuen euren aurpegi-espresioak igartzeko. Oso polita!

“Lehen zuzena Hori Bain egin genuen; sei abesti baino ez genituen eta behin eta berriro jo behar”

Nolako soinua dute Sorotan Beleren abestiek banden eskutik?

Soinu polita eta berezia, bestelakoa. Puntu komun bat ere badago, izan ere, Gorkaren eta bion ekarpenaz gainera, abestiak planteatu dira bateriak, baxuak eta gitarra elektrikoak lagunduta jotzeko, eta horrek ezinbestean eramaten gaitu

garai hartako Sorotan Belera. Beste alde batetik, bandetarako moldaketek eta 30 musikari elkarrekin jotzeak beste sonoritate bat ekartzen du, tinbreak... Ederra da, Xabierrek oso lan handia egin duelako moldaketak lantzen.

“Emaitza ederra da: Xabierrek oso lan handia egin du bandetarako moldaketak lantzen”

Hainbeste musikari agertokian batzea ez da erraza; nola moldatu zarete entseatzeko orduan?

Bandarekin entsegu bakarra egin genuen, Larrabetzuko kontzertua baino egun bi lehenago. Xabier aurretik elkartua zen bandarekin, eta guk ere entsegu batzuk egin genituen bere etxean. Era berean, bakoitzak gure kabuz egin ditugu entseguak, eta bandako musikariak elkarrekin euren lokalean. Nolanahi ere, COVID-19ak erritmoak bideratu dituen arren, ez dut uste egoera normal batean elkarrekin askoz entsegu gehiago egingo genituenik. Esandakoa kontuan hartuta, emanaldia oso ondo eta txukun irten zen, nire ustez.

Larrabetzuko bi emanaldiez gainera, beste bat egin duzue Getxon. Gehiago etorriko dira, ezta?

Baietz uste dugu, udan, urte bukarran... Egia esateko, muntaiak berak baldintzatzen gaitu, zeren eta, herrietako bandekin batera jotzeko egitasmoa denez, lehenengo eta behin banda egon

behar baita, eta bigarrenez, muntaia handia denez, areto berezia behar delako. Argi dago ez dugula Sorotan Beleren kontzertu-karga hura izango, ezta nahi ere; emanaldi puntualak eta bereziak izango dira eta, COVID-19a geldiarazteko osasun-eta edukiera-neurriak direla eta, baliteke datorren urtean ere emanaldia egitea, baina ez da inola ere epe luzeko egitasmoa.

Hogeita hamar urte atzera egingo dugu: ospea ia konturatu barik etorri zitzaizuen.

Musikarako zaletasuna bultzatuta, bizpahiru lagun batzen hasi ginen institutu garaian: Irlandako musika gustatzen zitzaigun eta hango abestiak jotzen genituen. Geroago Gorkarekin batu ginen eta abestiak sortzen hasi ginen. Ilusio handia egiten zigun abestiak inon bilduta izateak eta horregatik grabatu genuen maketa bat. Inguruko tabernetan banatu genituen kopiak, baita Nafarroako tabernetan ere: kilometro asko egin genituen. Horretan genbiltzala, Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketa egin zen bigarren aldiz, eta maketa hara bidali genuen. Ez genuen ezer espero; irratian gure musika entzute hutsak ilusio handia ekartzen zigun, besterik ez. Baina jendeak irratira deitu eta euren botoa guretzat zela esaten zuen, eta guk ere esaten genuen *“Tira! Beste boto bat!”*...

Eta lehiaketa irabazi zenuten.

Bai, horrek erraztasuna eman zigun hainbeste jendearengana zabaltzeko. Han eta hemen jotzeko deiak ia berehala hasi ziren eta pixkanaka-pixkanaka ohar-tu ginen bola handitzen hasia zela. Trasteak furgonetan sartu, kilometroak egin eta Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu... Oso urte berezia izan zen lehenen-

go hura: herrietara iritsi, bertakoen harrrera...

“Oso urte berezia izan zen lehenengo hura: trasteak furgonetan sartu, kilometroak egin, jendearen harrera...”

Bost urteko ibilbidea (1992-1996) egin zenuten, laburra, baina bizia; zergatik ez jarraitu aurrera?

Arrazoi asko egon ziren tartean. Lehenengo urteetan “olatuan” izaten zara eta ez duzu inola ere pentsatzen inoiz amaituko denik; hala ere, urteak pasatzen dira eta txispa galduz joaten da. Gainera, bigarren diskoa grabatzen hasi baino apur bat lehenago, Mikel Errazkinek osasun-arazo bat izan zuen eta, konposatzen jarraitzen bazuen ere eta kontratazio-lanetan ibiltzen zen arren, horrek bigarren plano batean egotera behartu zuen. Ondorioz, taldea ukitua gelditu zen, Mikel oso motor garrantzitsua zelako. Bestalde, musika-taldeetan ohikoak diren desadostasunak egon ziren gurean ere bai, eta hainbat bilera egin ostean erabaki genuen hirugarren diskoa amaitu eta aurkeztea, eta proiektua bertan behera uztea.

Talde inportantea izan zineten euskal musika eta kulturarako; zure ustez, zein izan da zuen ekarpena?

Egia esan, ez dakit ondo nola neurtu. Ekarpen txikia ala handia izan zen alde batera utzita, kontziente gara gure musikaren bidez garai bateko jendarte batengana ailegatu ginela, eta hori pozik egoteko arrazoia da. Uste dut musika eta kultura orokorrean lagungarriak direla herritarrak batzeko, eta horretan ere lagundu bagenuen, pozik. Beste alde batetik, ez dakit musikalki ekarpenik egin genuen; ez dut uste egiten genuena hain berezia zenik. Beharbada, jende askorengana heltzen lagundu ziguten folka, rocka eta popa uz-tartzeak, Gorkaren ahotsaren tinbre bereziak eta melodia errazak eta erakargarriak egiteak, baina pentsatzen dut kasualitateak ere zerikusi handia izan zuela; hau da, hainbat faktorek bat egin zutelako momentu zehatz batean. Ziur nago garai hartan gure estilotik hurbileko taldeak izan zirela; guk zortea izan genuen, maketa lehiaketa irabazi genuelako.



“Ez dut nire burua ordezeko moduan betiko lan egiten ikusten”

IRATI ORTIZ DE ANDA MARTIN | aktoreen noizbehinkako ordezekoa



t: Itxaso Marina Ondarroat

Zein eszenatan agertzen zara?

Eszena bi egin ditut Migel umearen ordezeko moduan: bata, zuhaitz batek erortzen, eta bestea, korrika egiten. Amaia ordezko moduan, bestalde, hainbat eszena egin ditut: uretan, urpean, ortuan, horma batetik jaisten... Ez ziren haiek egiteko moduko eszenak, arriskuak izan zitezkeen eta.

Benetan ziren arriskuak?

Nik egiteko, ez. Alturretan ibili behar izan dut, urpean arnasketari eutsi... baina beti sentitu naiz seguru, banekielako ondoan beste pertsona bat nuela, ni babesten.

Lehen aldia izan da film batean ordezeko ibili zarela. Nola ailegatu zitzaizun aukera?

Aktore, ordezeko, estra... ibiltzeko webgune batean sartu nintzen eta kuriositate hutsez eman nuen izena, zeren denetarik egitera animatu ohi naiz. Hasieran deitu zidaten Amaia ordezkoa izateko, baina ezetz esan nien: egun batzuk eman behar nituen filmatzen eta ez nituen hainbeste eskola-saio galdu nahi, zeren uni-

“Beti sentitu naiz seguru, banekielako ondoan beste pertsona bat nuela, ni babesten”

bertsitatean nabil ikasten. Orduan, Migelen ordezeko izateko proposamena egin zidaten, eta, filmatze laburragoa zenez, baietz erantzun nien. Erabateko konfinamenduaren ondoren, berriro eskaini zidaten Amaia ordezkoa izatea: 10 eguneko filmatzea izango zela adierazi zidaten, udan; baietz erantzun nuen.

Proba berezirik egin behar izan zenuen?

Ez, ez nuen castingik gaintitu behar izan. Egun batean argazkiak atera zizkiguten Haizeari (Amaia, filmean) eta bioi batera, ikusteko elkarren antzik genuen, eta beste egun batean Lierren (Migel, filmean) arropa probatu behar izan nuen, ikusteko ondo zetorkidan. Bestalde, zuhaitzetik erortzen naizen eszena monitore batekin entseatu behar izan nuen hura filmatu aurretik.

Ilargi guztiak pelikula da Igor Legarreta zine-zuzendariaren azken lana, eta Fant Bilboko Zinemaldi Fantastikoan estreinatu zen maiatzean. Filmean, 19 urteko lezamarrak parte hartu du pertsonaietako biren ordezeko moduan: Amaia protagonistaren eta Migel umearen ordezeko izan da eszena arrisksuetan. Hala ere, ez da zineman egin duen lan bakarra izan.

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso-osoa aberasgarria eta polita. Alde batetik, zinema munduko jende asko ezagutu dut, baita leku berriak ere, zeren pelikula, besteak beste, Erratzun filmatu da, Nafarroan. Bestalde, ordezeko lana aurkikuntza handia izan da niretzat, haiek barik filmak ezin izango lirakeelako aterra aurrera; egia da ez zaituela inork ezagutzen, baina ni ez naiz horregatik deseroso sentitzen. Gainera, pelikula baten atzean zer nolako lana dagoen ikusteko aukera izan dut, eta egia esan, harritu ninduen benetan, zeren guk pantailan ordu bateko filma ikusten dugun arren, beharbada, urte biko lana egin da eta oso lanaldi gogorak izan dira, eta batzuetan ezorduetan. Zuhaitzetik erortzen naizen eszenak, esaterako, segundo bat irauten du pelikulan, baina egun oso bat eman genuen hura filmatzeko. Azkenik, jakina, ikasi dudana guztia ere kontuan hartzekoa da, oso baliagarria.

Nola konpondu zara aktoreekin?

Haizearekin eta Lierrekin oso-osoa ondo. Itziar Ituñorekin oso gutxitan izan naiz, baina Josean Bengoetxearekin eszenak grabatu ditut eta egundoko per-

“Ordezkoen lana aurkikuntza handia izan da: haiek barik filmak ezin izango lirateke atera aurrera”

tsona da: oso alai eta beti txantxan eta laguntzeko prest. Igor Legarretarekin ere, zuzendariarekin, ondo moldatu naiz eta oso eskertuta nago berarekin.

Zeure burua filmean ikusi ondoren, zer pentsatzen duzu egindako lanari buruz?

Bada, asko gustatzen zait eta oso pozik nago emaitzarekin. Gainera, uste baino gehiago ateratzen naiz!

Pelikula ere gustatzen zaizu?

Askoi! Pelikula festibalean estreinatu ondoren –pantaila txikian ikusi genuen bertan–, zinemara joan nintzen pantaila handian ikustera... eta ileak ere zutitu! Oso istorio ona da, apur bat beltza, baina sentimenduekin eta zirrarekin zerikusi handia du, eta originaltasuna.



Errepikatzeko moduko esperientzia izan da?

Bai, eta, egia esateko, errepikatu egin dut. Pelikulako eszenetako batean pertsona bat erretzen dute eta eszena hori ordezko profesional batek egin zuen. Filmatzera ordezkoen koordinatzaile bat ere etorri zen eta harremanetan ipini ninduten berarekin. Esan zidan nire ezaugarrie-

tako pertsona bat behar izanez gero deituko zidala, eta deitu zidan Amenabarren *La fortuna* telesailan ordezko ibiltzeko: eszena bat filmatu dut igerileku batean.

Hortaz, baliteke aukera gehiago etortzea; ordezko profesionala izateko aukera aztertu duzu?

Kirola eta gorputz-jarduera asko gustatzen zaizkit. Horri lotuta, kirol-zientziak eta magisteritza ikasten nabil, izan ere, etorkizunean nire burua irakaskuntzan ikusten dut, kirol-irakasle moduan. Ordezko profesionalak oso eszena arriskutsuak egiten dituzte eta, tira!, horiek ur handiak dira... Era berean, zineman leku batetik bestera ibili behar da filmatzeko, eta ez dakizu datorren astean nondik ibiliko zaren; nik, ordea, errutinak behar ditut bizitzan... Ordezko ibiltzeko aukera hor dago eta ez dut baztertzeko, baina bakarrik lan puntualetarako; ez dut neure burua honetan betiko lan egiten ikusten.



POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Landa Heziketa eta Laguntza Ikasketuzako Ikastetxea

Unitzaga Itzala Kalea, 1 | 48160 - DEIRO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

Matrikula zabalik.
Kontsultatu datak webgunean:
www.txorierri.net

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazio eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazio eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmen eta Merkataritza Esparruan Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

40 urte, milaka txori

Kirolzalea

Lezamarra oso kirolzalea da: futboleko jokatu du eta gaur egun surfa eta apnea egiten ditu, baita menditik korrika ere. “Kirola egitea gustatzen zait eta horrek laguntzen dit ordezko ibiltzeko orduan: surfa egitea, esaterako, lagungarria da uretako eszenak egiteko, eta menditik korrika egitea, sasoi onean egoteko”. Bestalde, areto futboleko umeen entrenatzaile dabil Sondikan, eta solfeo-irakasle Larra-betzuko Musika Eskolan. Pianoa ere irakasten du bere kabuz.

Teknologia, lan-elkarrizketetarako tresna



Gure bizitzako arlo gehienetan gertatzen den moduan, teknologiaren erabilerak gure egunerokotasuna hartu du, eta lana aurkitzen saiatzen garenean, joera hori oso nabarmena da. Enpresek beren taldeak osatzeko pertsonak behar dituztenean, online formatua ere erabiltzen dute hautaketa-prozesuak egiteko. Iraganean, Internet soilik lan-eskaintzak ezagutarazteko erabiltzen zuten enpresek, baina orain gero eta ohikoagoa da plataforma digitalak erabiltzea pertsonak ezagutzeko.

Horrenbestez, eta bizi dugun osasun-egoerak sustatuta –zuzeneko kontaktua egokitu behar izan dugu–, teknologiak momentu hau erraztu digu eta lan elkarrizketak eraldatu egin ditu. Orain arte elkarrizketak telefonoz eta ondoren aurrez aurre egiten ziren, eta gaur egun online izatera pasatu dira.

Orokorrean, elkarrizketa guztietan, gure urduritasuna kontrolatu eta gure balioa erakutsi behar dugun fase hori gaitzitzeko, hainbat jarraibide daude. Online elkarrizketaren kasuan ere komenigarria da gure helburua betetzen lagunduko diguten hainbat elementu kontuan hartzea.

Nola transmititu dezakegu pertsona egozia gairela?

Gure enplegu-zerbitzura jotzen duten enpresek gehien baloratzen duten ezagarrietako bat motibazioa da. Enpresek pertsona ekintzaileak eta erronkei aurre egiteko prest daudenak eskatzen dizkigute.

Hori dela eta, enpresekiko zubi-lanetan aritzen garen heinean, EGAZ Txorierrin pertsonari laguntza ematen diegu inguruko enpresen aurrean gaitasun horiek eta beste batzuk agerian jartzeko. Horretarako, hainbat baliabide eta tresna eskaintzen ditugu.

Era berean, orain dela gutxi, abian jarri dugu plataforma digital bat, pertsonak eta enpresek horren bidez elkar ezagutu dezaten. Horri esker hautaketa-prozesuak azkartzen dira; izan ere, edonoz eta edonon gerta daiteke etorkizunean lan-harreman bihurtu ahal den lehen pausua. Elkarrizketa, aurrez aurrekoa zein online formatukoa izan, pausu horietako beste bat da.

Nahiz eta elkarrizketak teknologiari esker hobera egin dezakeen, detaile txikiek ere hori okertzea eragin dezakete.

Pertsona asko, batez ere gazteak, ohituta daude mugikorra edo beste edozein gailu



erabiltzera komunikatzeko. Halere, ez da gauza bera hori gai pertsonaletarako edo lana aurkitzeko erabiltzea. Beste pertsona batzuk, ordea, ez daude horren ohituta kamera baten aurrean hitz egitera edo beren burua bideoan grabatzera. Hona hemen dementzako erabilgarriak izango diren hainbat gomendio:

- Kameraren aurrean jarri baino lehen, gure lan-elkarrizketaren osagai nagusia izan behar dugu buruan: enpresak behar duen pertsona garelako erakustea.

- Gainera, arreta jarri behar dugu atal teknikoan. Konexioak ona izan behar du, mikrofonoak ongi funtzionatu behar du, argiztapen egokia izan behar dugu eta, ahal den neurrian, zarata eta etenak ekidin behar ditugu.

- Gehienez ere minutu pare bat izango ditugu nor garen eta enpresan zer ekarpen egin ditzakegun aditzera emateko; horregatik, etxetik konektatzen bazara, familiari abisatu etenak ekiditeko.

- Horrez gain, aintzat hartu behar da kamerak ez duela soilik gure irudia hartzen, baita gure inguruan dagoena ere. Horrenbestez, arreta jarri detaileetan. Adibidez, pertsona oso txukunak garela esaten badugu eta atzealdean apalategi erabat nahasia badugu, ez da batere koherentea izango.

- Ez-hitzezko komunikazioa gure hitzak baino garrantzitsuagoa izatera irits daiteke; ez dugu gehiegizko keinuekin egin behar eta jarrera naturala izaten saiatu behar dugu. Oso garrantzitsua da ahotsaren tonu altu eta argia izatea, ongi ahoskatzea eta, batez ere, kamerara begiratzea, elkarrizketa egiten digun pertsonaren begitara begira egongo bagina bezala. Badakigu irribarreek atea irekitzen dituztela: erlaxatu aurpegia eta erakutsi naturaltasuna.

- Hasiera batean faktore garrantzitsua ez dirudien arren, online elkarrizketak ikaragarri baloratzen den beste ezaugarri bat eskatzen du: puntualtasuna. Hortaz, elkarrizketa ordu zehatz batean bada, hobe izango da bost minutu lehenago konektatzea. Elkarrizketa egiteko epea ematen

badigute, gaur bihar baino hobe. Ziurrenik ez gara lana nahi duen pertsona bakarria izango, eta hori da gure gogoia adierazteko aukera onena.

- Azkenik, beste pertsona deskonektatu arte edo grabazioa amaitu arte itxarotea komeni da.

Edonola ere, elkarrizketa guztietarako gomendio onena naturala izatea eta gure au-

keretan sinestea da. EGAZ Txorierrin tailerrak eta ikastaroak antolatzen ditugu pertsonen beren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko, haien marka pertsonala transmititzen ikasteko eta lan-merkatuan segurtasunez eta konfiantzaz kokatzeko. Zain gaituzu!

Susana Vidal Hornes

Egaz Txorierriren enplegu-arloko arduraduna.

Aurkitu nahi duzu zure talentua garatzeko aukera emango dizun lanpostua?

Hazilanek helburu hori lortzeko erraztasunak emango dizkizu; izan ere, zure gaitasunak indartzeko eta kudeatzeko baliabideak eta tresnak eskainiko dizkizu coaching tekniken eta motibatze dinamikien bitartez, giro seguru eta konfiantzazkoan.

Aurreko edizioen arrakasta dela eta, lan-munduan txertatzeko Hazilan proiektuaren edizio berria martxan jarri du EGAZ Txorierrin zerbitzuak; proiektua irailaren 29an hasiko da.

Goi-mailako prestakuntza baduzu eta 20 eta 44 urte bitartekoa bazara, zure interesekoa izan daiteke, bereziki trebezia hauen bila bazabiltza: zure gaitasun pertsonalak indartu, edozein motatako erronkei aurre egin, zure marka pertsonala sortu, lan-elkarrizketa onak egiten ikasi eta kontaktu profesionalak egin.

Proiektua % 100ean lagunduko da diruz (erdia, Europako Gizarte Funtsak; beste erdia, EGAZ Txorierrin) eta bi fase izango ditu. Lehen fasea aurreko AKTIBATU ikastaroa izango da, 80 ordukoa, eta horren bidez baliabide pertsonalak jasoko dituzu. Bigarren faseak, KOKATU izenekoa, 200 ordu praktiko izango ditu, eta horren bidez, zure talentua erakutsi ahal izango duzu inguruko enpresetan, zure profil profesionalaren arabera lanpostuetan.



Animatu zaitetz edizio berrian parte hartzera!

- Hasiera: 2021/09/29
- Bukaera: 2021/10/21
- Izena emateko azken eguna: 2021/09/17
- Izena eman: Egaz Txorierrin bulegoan (Sondika).
- Iraupena: 80 ordu
- Orduetgia: 09:00 -14:00

“Lantegiaren etorkizuna duela bost urteko kaleratzeen aurretik zegoen erabakita”

EATONEKO ENPRESA-BATZORDEA

Berrogeita hiru urteren ondoren, Eaton Estatu Batuetako multinazionalak betiko itxi du Derioko lantegia. Multinazionalak martxoan jakinarazi zien langileei bere erabakia; hala ere, enpresa-batzordeko kide ohien ustez, lantegiaren etorkizuna duela bost urteko kaleratzeen aurretik bazegoen erabakita eta enpresa gezurretan ibili da azken urteetan.

Idoia Martin, Maribel Medina, Bego Martin eta Txomin Llanos dira enpresa-batzordeko kide ohiak. Eatonek duela bost urte aurkeztu zuen lehenengo enplegu-erregulazioko espedientea (EEE), baina, euren iritziz, enpresaren eraispena lehenago hasi zen. “EEE hori baino lehen, 60 urtetik gorako langile batzuk kaleratu zituzten, eta horregatik indemnitzatu ere bai: orduan konturatu ez baginen ere, enpresaren eraispena une hartantxe hasi zen. Bestalde, inbertsioa egin zen segurtasunean eta pentsatu genuen seinale ona zela. Hala ere, lehen EEE etorri zen, 37 lankide kaleratu zituzten, eta horrek agerian utzi zuen enpresaren etorkizuna zein izango zen”. Harrezkero bost urte pasatu dira. “Aurretik erretiratuentzako eta kaleratuentzako baldintzez gainera, akordioa sinatu genuen, bermatzeko gainerako langileok bost urtean lanean jarraituko genuela. Akordioa 2020ko aben-

duan amaitu zen eta, saiatu arren, ezin izan genuen hura berritu. Gainera, kontuan hartu behar da langileon batz besteko adina 55 urtekoa dela, eta bost urtean ez dela kontratazio berririk egon; ezta oporraldiak betetzeko ere”.

Akordioa amaitu eta handik hilabete bi eta erdira jakinarazi zuten enpresa itxiko zela. “Bilera asko egin ditugu enpresaren ordezkariekin eta hasiera-hasieratik azaldu digute argi haien jarrera zein zen; hori dela eta, greba mugagabera deitu genuen, guztion artean zerbait lortzeko, zeren eta bakoitzak bere aldetik ez baikenuen ezer lortuko, ziur asko”. Antolakuntzari eta ekoizpenari lotutako arrazoiak argudiatuta, Eaton multinazionalak bigarren EEE aurkeztu zuen martxoan. “Gehiegizko gaitasuna zegoela arrazoi-tu dute. Duela bost urteko EEE baino lehen, hiru produktu egiten genituen Derion, baina haietako bat –errentaga-

rriena– Errumaniara eraman zuten han ekoizteko; gauza da Errumanian hiru produktuak egiten ikasi dutela, eta, hortaz, enpresaren esanetan, egiten duten baino lan handiagoa egin lezakete han, eta horregatik, hain zuzen ere, itxi dute Derioko enpresa. Jokaldia gure gerentziaren oniritziarekin egin dute, ze urte hauetan egin duten bakarra oso soldata altuak ko-bratzea izan da”.

Enpresa-batzordeko kide ohiak salatu dute enpresaren zuzendaritza gezurretan ibili dela eta azken momentura arte ukatu duela enpresa itxiko zela. “Behin baino gehiagotan galdetu genien bost urteko bermea amaituta enpresaren etorkizuna zein izango zen, eta lasai egoteko erantzuten ziguten, erretiroa bertan egonda hartuko genuela... Alabaina, errealitatea bestelakoa zen: fabrika erabat utzita zegoen, eta makinak erabat zaharkituta, izan ere, urte hauetan ez da bertan inolako inbertsiorik egin, eta inbertsiorik ez duen enpresak ez du etorkizunik; aurrera jarraitzeko jende gazterik ez duen enpresak ere ez du gerorik. Horri lotuta, uste dugu langileon batz besteko adina apropos utzi zutela, aurreko EEEen langilerik gazteenak eta zaharrenak kaleratu zituztelako”. Haien esanetan, enpresak oso jarrera kaskarra agertu du hasieratik zekielako amaiera zein izango zen. “Lehenengo bileran esan genien gutxienez aurreko EEEren baldintzak eman behar zizkigutela, baina ez zuten onartu. Ondorioz, greba mugagabera deitu genuen –hilabete bi irau du– eta azkenean lortu dugu baldintzak apur bat hobetzea. Ez diote egoerari aurre egin; gure iritziz, gauzak beste modu batean



“Urte hauetan ez da lantegian inolako inbertsiorik egin: inbertsiorik ez duen enpresak ez du etorkizunik”



kudeatu ahalko ziren: egia onartuta eta gu orain dela bost urte bizitako une gorrak berriro bizitzera behartu gabe”.

“Baldintza onak”

Aurreko EEn moduan, oraingo honetan ere 37 langile kaleratu ditu Eaton multinazionalak. Langile guztiek lanean jarraitu nahiago izan balute ere, txarra alde batera utzita, pentsatzen dute kaleratze-baldintza onak lortu dituztela, “gure adina eta prestakuntza kontuan hartuta, gehienok aukera gutxi dugulako beste lan bat topatzeko”. Guztiek langabezia-sorospena kobratzeko aukera dute, eta adinaren arabera baldintzak. “Berrogeita hamabost urtetik beherakoek 45 eguneko kalte-ordaina jasoko dute urteko, eta 15.000 euro; 55 urtetik gorakoek aurretik hartuko dute erretiroa, % 100ean kotizatuko dute gizarte-segurantzian eta aurre-erretiroaren plana 63 urte beteta amaituko da”.

Langileek erakunde publikoen hitzezko babesa izan dute, eta udaletxe guztietan sartutako mozioak onartu dira. “Baina hitzak baino ez dira izan, erakundeek benetan ezin zutelako ezer egin. Eatonek ez du inoiz dirulaguntzarik izan,



ez Eusko Jaurlaritzarena, ez Bizkaiko Foru Aldundiarena; hortaz, dirulaguntza jaso duten enpresei presio txikia egiten zaiela kontuan hartuta, askoz txikiagoa, Eatonen kasuan. Horrek guztiak hurrengo hausnarketa egitera eraman gaitu: Nola izan daiteke bertan multinazional asko kokatu eta, gero, bertan jarraitzea behartu ezin izatea? Enpresak hezi behar dira, jakin dezaten ezin direla hona etorri, etekina atera, eta gero negozioa herrialde merkeagoetara eraman”.

Eaton enpresan material elektrikoa ekoizten dute eta Derion 1978. urtean

zabaldu zuten fabrika, garai hartan enpresak Medex zuela izena.

“Enpresak hezi behar dira, jakin dezaten ezin dutela bertan etekina atera, eta gero negozioa herrialde merkeagoetara eraman”

PELUKERIA ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aireliza doktorea, 11. - 1. esk. 48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

LEJARRENE JÄTETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

"Garrantzitsuena da sentitzea ahal izan duzun onena eman duzula"

ALEX RICO | pilotua

Alex Rico zamudioztarra (38 urte) motorraren zale amorratua da. Gehienbat ikusle izan da rallyetan, baina orain dela gutxi animatu da autoa gidatzera eta ekainean debuta egin du Miranda eta Ebroko zirkuituan. Rallykrosa eta autocrosa hizpide izan ditugu hurrengo orrialdetan.

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Alex Albarran

Ricori lagunek kutsatu zioten autoen lasterketarako zaletasuna. "Beti ibili naiz rallyen inguruan, izan ere, lagunek rallyko autoak dituzte eta nik lagundu ohi izan diet. Autoaren barruan sartzeko gogoia ere izan dut eta, azkenean, diru apur bat aurreztu, eta autoa erosi nuen duela urte bi eta erdi". Yacar croos bat erosi zuen, beste batzuen artean, ezaugarri hauek dituen: 600 cm³ko motorra, 125 zaldi eta 300 kiloko pisua. "Oso auto arinak eta biziak dira". Beste lagun bik ere autokroserako autoa erosi zuten, eta azken urteetan elkarrekin dabilta lasterketarako zaletasuna gozatzen.

"Abiadurak ekartzen duen adrenalina erakartzen nau, autoa kontrolatzeko sentazioak. Auto barruan zaudela, ez dago ezer gehiagorik eta gogoia bakarrik lasterketan ipintzen duzu. Bestalde, koadrilaren momentua ere bada, askotan lagunak ere etortzen direlako entrenamenduetara laguntza eta babesa ematera. Gainera, autoa gidatzen duten lagunekin batera ere ibiltzen naiz lasterketan". Bizkaian ez dago zirkuiturik eta, ondorioz, Errioxaraino edo Miranda de Ebroraino joan behar du entrenatzera. "Batuetan hilean bitan joaten gara, edo hilean behin; eta orain, COVID-19a dela eta, askoz gutxiago. Gutxi da, baina guretzat ez da bizimodua, zaletasuna

"Abiadurak ekartzen duen adrenalina erakartzen nau, autoa kontrolatzeko sentazioak"

baizik, eta dirua behar da praktikatu ahal izateko". Zaletasun garestia dela kontatu digu. "Inbertsio handia egin behar da autoa erosteko, eta erosi ondoren beste gastu batzuk gehitu behar: pista alokatzeta, hara joateko bidaia, zure eta lagun-tzaileen gastuak, matxurak konpontzea, ostatua, gaua bertan ematen baduzu...". Gastuei aurre egin ahal izateko, babesleak topatzen ahalegindu da; hala ere, ez du zorterik izan.

"Autoa erosteaz gainera, beste gastu batzuk ere badaude: pista, bidaia, matxurak..."

Zamudioztarrak rallykrosa eta autocrosa egiten ditu. "Rallykrosaren zirkuitu erdia asfaltoa da, eta beste erdia, lurra; autokrosaren zirkuitua, berriz, lurra da oso-osorik. Bietan auto berbera gidatzen dut. Asfaltoan gidatzea eta lurrean gidatzea oso ezberdinak dira. Lurreko zirkuituan beti dago hautsa, eta «lau euri-tanta» bota dituen sentazioa. Autoak irrist egiten du etengabe eta ondo kontrolatu behar duzu, autoaren pisua kontuan hartu". Auto txikia da eta, kanpotik ikusita, pentsatu liteke lasterketarako beste auto batzuk baino hauskorragoa dela; Ricok ziurtatu digu segurua dela hura gidatzea. "Kolpeak jasateko prestatuta dago eta pilotua babesteko euste- eta segurtasun-sistemak ditu. Kaskoaz gainera, pilotuek suaren aurkako arropa janzten dugu, eskularruak eta botinak eta guzti, Automobilismoaren Nazioarteko Federazioak agintzen duen moduan".


"Lurreko zirkuituan, autoak irrist egiten du etengabe eta ondo kontrolatu behar duzu"

Zentzuduna

Autoa ez ezik, burua ere kontrolatu behar du pilotuak. "Kontzentrazio handia izan behar da; bestela, gauzak ez dira ondo ateratzen. Gainera, kolpeak oso gogorrak izan daitezke, eta bizia arriskuan jarri. Irteera-parrillan nagoela hasi naiz pentsatzen zirkuitua nolakoa den, bihurguneak nola hartu behar ditudan, nola zuzen guneak... Kontzentratu behar dut kolpeak ekiditeko". Esprint-lasterketak egiten dituzte, 10 minutu inguru irauten dutenak; guztira zazpi buelta egiten dituzte zirkuituan. "Egia esan, ez dakit zein abiaduratan joaten naizen, ez dudalako abiadura-neurgailuari begiratzeko denborarik, baina... nahiko arin". Oraindik ez du susto handirik izan. "Entrenamenduetan baten batek zure kontra egin ahal du talka, eta matxura egin. Orain arte gauza txikiak izan dira beti, zorionez: apurketaren bat, trapezioren bat haustea... Aitarrena egingo dugu, badaezpada!".

"Kontzentrazio handia izan behar da; bestela, gauzak ez dira ondo ateratzen"

Nolanahi ere, pilotu zentzuduna eta arduratsua da Rico. "Entrenamendua edo lasterketa baino bi aste lehenago hasten



BEER

83

A.Riko

VIRAL VIBES
VRI
Super soft
Durable
with every ride

VIBES



*“Ez dut abiadura-
neurgailuari begiratzeko
denborarik, baina...
nahiko arin joaten naiz”*

naiz autoa prestatzen, dena ondo da-
goen egiaztatzeko. Ondo ibiltzea gusta-
tzen zait, baina gerta daiteke, esaterako,
Errioxaraino joan eta autoa probatu barik
bueltatzea, huts egin duelako. Ezuste-
ko handia da halakoak gertatzen dire-
nean... Eta lasterketan bertan? Arriskatu
behar da, jakina; halere, momentuoro
jakin behar duzu zer zabiltzan gidatzen,
eta ezin zara besteen gaineratik pasatu,
gainerako autoetan ere zu bezalako per-
tsonak daudelako, etxera ailegatu behar
dutenak. Azken batean, hau zaletasuna da
eta ez gara dirudun egingo. Nire ustez, ga-
rrantzitsuena da etxera ailegatzea gauzak
ondo egin dituzula jakinda eta ahal izan
duzun onena eman duzula sentitzea”.

*“Ezin da besteen gaineratik
pasatu, gainerako
autoetan ere etxera
ailegatu behar duten
pertsonek daudelako”*

Bere onena hain zuzen eman zuen
ekainaren 12an, Miranda de Ebron egin
zen San Juan del Monte lehiaketan.
Azaldu digunez, iaz debuta egitekoa
zen, baina pandemia dela-eta lasterke-
ta guztiak bertan behera gelditu ziren,
eta, ondorioz, esandako lasterketan egin
du debuta aurten. “Argi-itzalez betetako
lasterketa izan zen. Lehenengo txandan
laugarrena nintzela, batek kolpea eman
zidan aurreko eta atzeko gurpiletan: tal-
karen eraginez, autoko errotula bat apur-
tu zitzaidan eta zazpigarrena heldu nin-

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OK

OAKLAND

ENGLISH

ama
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

tzen helmugara. Bigarren txandan sartu nintzen, baina bakarrik lehenengo hirurak joaten dira finalera, eta ni bosgarrena heldu nintzen helmugara". Lasterketan, 26 pilotuk hartu zuten parte. "Oso urduri izan nintzen, eskarmentu handiko pilotuen kontra ibiliko nintzelako: pentsatu nuen, beharbada, lasterketa handiegia zela niretzat... Baina, gero, kaskoa ipini, eta guztiok gara berdinak. Ipurdia estatu behar da, eta aurrera egin; bestela, sobera zaude han". Zamudioztarrak zorte txarra izan zuen. "Pena izan zen, lagunak ni ikustera etorri zirelako eta gauza polita izan zitekeelako. Bueno, lasterketa gehiago etorriko dira eta espero dezagun hobea izatea". Hitzorduek egutegian ditu markatuta: datorren hilabetean rallykrosa egingo du Mirandan bertan; ondoren, beste rallykros bat eta lau autokros lasterketa. Lizentzia Zamudio Racing elkartean du aterata.

Babesleak

"Badakit ezin naizela kirol honetan inora ailegatu, dirurik ezean ezin delako ezer egin; bestela, gaztea izan behar

"Argi-itzalez betetako lasterketa izan zen Miranda de Ebrokoa; nire debuta, hain zuzen ere"

duzu, eta babesletza lortu. Dena da garestia: autoaren osagarriak, bidaia, lasterketa, gasolina... Ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina hori diruaren arabera izango da. Etxea da lehenetsua, eta gero, zaletasuna". Lagunak eta senideak ditu babesle handienak, eta bakarrik. "Lagunek laguntzen didate autoaren konponketekin; adibidez, lagun batek tailerra du eta hara eramaten dut autoa. Anaiak, bestalde, harategiaren publikitatea ipini du autoan, eta kanpora

"Lagunak eta senideak ditut babesle handienak, eta bakarrik"

"Badakit ezin naizela kirol honetan inora ailegatu, dirurik ezean ezin delako ezer egin"

ateratzen garenean jatekoa ere ematen digu. Lagunak zirkuituetara lagundu ohi didate".

Ricoren esanetan, zaletasuna handia dago; baliabiderik, berriz, ez. "Ezin zara inora eskatzera joan, ezta erakundeetara ere. Entrenatu ahal izateko, Nafarroara, Errioxara, Burgosera edo Kataluniara joan behar dugu, eta, egia esan, pena da etxetik hurbil zirkuiturik ez egotea... Beste herri batzuetan, esate baterako, Katalunian edo Galizian, kirol hau nahiko babestuta dago eta erakundeek diruz laguntzen diete pilotuei. Bertan, aldiz, ez dago rallytarako diru-laguntzarik eta oso zaila da lasterketak aurrera ateratzea". Horiek horrela, berak zaletasunaz eta abiaduraz disfrutatzen jarraituko du, ahal duen guztietan.

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK
Ekainean, uztailan eta irailean



- **MINTZAMENA** - ekainaren 22tik uztailaren 9ra,
Astean 6 ordu 3 egunetan (18 eskola-ordu)
Izena emateko azken eguna maiatzaren 28a

- **B1-B2-C1** - uztailaren 1etik 26ra, 9:00-14:30
(90 eskola-ordu)
Izena emateko azken eguna ekainaren 25a

- **B1-B2-C1** - irailaren 1etik 24ra, 9:00-14:30 edo
16:00-21:30 (90 eskola-ordu)
Izena emateko azken eguna uztailaren 16a

*Langabetuentzat matrikuletan prezio bereziak.

- **B2 eta C1** - irailaren 13tik 24ra, 3 ordu egunero
(30 eskola-ordu)

Izena emateko azken eguna uztailaren 16a
*Deialdi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen deialdira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gainditu ez dutenak; baita, lehen deialdira ezin izan direnak joan ekaina arte ez dutelako lortu maila.

**MATRIKULA ZABALIK
INFORMA ZAITEZ**

944 540 062 // euskaltegia@txorierrri.eus

Loiuko eskola 30eko hamarkadan

Loiu baserriek osatutako herria zen 30eko hamarkadan, 1.000 biztanle inguruko nekazal herria. Iñaki Olabarrieta historiazaleak kontatu digunez, herrian eskola txiki bat zegoen Larrakoetxe auzoan. Eraikinak bi solairu zituen eta, sexua irizpide izanik, ikasleak bi solairutan banatuta zeuden. Beheko solairuan mutilen ikasgela zegoen eta irakaslea Santiago Rodríguez Garcia zen; goiko solairuan nesken ikasgela zegoen, baina ezin izan dugu jakin irakaslea nor zen.



Fila de atrás y de adelante: Juanito Bilbao, Tomás Begón, Norberto Bobaurazaga, Benito Gamboa, Gregorio Bilbao, Félix Aresti y Mateo Bilbao. 1ª fila: Sabino Arzaguilla, Dionisio Lamondo, Cipri Basteneta, Sabino Latorre, Jesús Aurrekoetxea, José Bilbao, Bando Etxenike, José Luis Asteandio y Santiago Rodríguez. 2ª fila: Perfecto Arleta, Iñaki Ibarluzea, Cirilo Astobiza, Leoncio Bilbao, Sabino Larrabetti, Sabino Gaznahaga, Bonifacio Begón, José Laronda, Doroteo Bilalaberria, Ali Lopategui y Teodoro Bilbao. 3ª fila: Eduardo Gamboa, José Mari Moreno, Tomás Sertucha, Agustín Aresti, Víctor Sostakua, Luis Arzaguilla, Domingo Larita, Juan Gartzahaga, José Gartzahaga, José Luis Bolumburu y Taimen Aurrekoetxea. 4ª fila: Vicente Ledesma, Félix Carada, Valeriano Zabala, Paulino Ugarte, Isidro Bolumburu, Bernabé Astobiza, Tomás Ibarluzea, Víctor Saiz del Castillo, Juan Bilbao y Carmelo Gartzahaga. (1931)

t: Ixone Ledesma Villanueva

Santiago Errepublikara garaiko irakaslea izan zen, eta garai hartako gobernuak hezkuntzari aitortzen zion garrantzia emateaz arduratu zen. Gobernuak hainbat erreforma onartu zituen, hala nola doako hezkuntza eta hezkuntza laikoa. Bi ezaugarri horiek garrantzitsuak izan ziren, izan ere, haur guztiek aukera berdina izan zuten ikasteko. Horri esker, herritarren alfabetatze-kopurua igo zen, Espainiako Estatuaren progresioa ahalbidetuz. Errepublika garaiko hezkuntza-eredua handinahikoa izan zen, Espainia atzeratuari bultzada emango ziona, Europako beste herrialdeen parera heltzeko. Baina Gerra Zibila hasi zenean, erreforma guztiak bertan behera gelditu ziren eta Estatuak hezkuntza-sistema guztiz aldatu zen, berriro ere atzera eginez.

Larrakoetxeko eskolak ere Gerra Zibileko ondorioak jasan zituen, eta frankismoaren hezkuntza-eredua. Santiagok aurrera eramandako metodologia mehatxatua izan zen. Eskolan ikasgai berriak ezarri ziren, haien artean, erlijioa, garbitasuna eta jarrera, kaligrafia... Frankismoak tresna

gisa erabili zuten hezkuntza nortasun konkretu bat lortzeko eta, era berean, bere ideologia gazteengan bermatzeko. Helburu hori lortzeko, irakasleak kaleratu ere egin zituzten eta haietako bat Santiago izan zen.

Ikasleek ez ezik, herriak ere miresten zuten Santiagok irakaslea; lanetik Gerra Zibilaren hasieran kaleratu zuten

Olabarrietaren arabera, Santiago lanetik Gerra Zibilaren hasieran kaleratu zuten, 1936. urtean. Urte horretan, herrian, altxatuen kontrako herritarren zerrendak egiten hasi ziren eta Santiagoren izena zerrenda horretan agertu ondoren bota zuten eskolatik. Lanik gabe, berak eta bere familiak ondorioak pairatu behar izan zituzten eta nekazal lanetan aritu ziren etxe ondoko landan, Santiagok ez zuelako aukerarik izan berriro irakasle izateko.

Olabarrietaren esanetan, Santiago bestelako irakaslea zen: ikasleek kezkatzen zen eta ikasgelako dinamika ez zeuden ez izuaren menpe, ez agindu autoritarioen menpe. Ikasleek ez ezik, herriak ere miresten zuten Santiago eta pertsona jakintsua zela nabarmentzen du Olabarrietak. Kaleratu zutenean, herria Santiago lagutzen saiatu zen.

Larrakoetxeko eskolak ere Gerra Zibileko ondorioak jasan zituen, eta frankismoaren hezkuntza-eredua

Elizaren errepresioa

Bestalde, Olabarrietak azpimarratu du 30eko hamarkadan eta ondorengo frankismo urteetan bizitako elizaren errepresio gogorra. Eskolan ez ezik, herrian ere sexu arteko bereizketa bizi zuten, eta horrek ondorioak izan zituen umeen sozializazio prozesuan. Elizaren kontrola eta bekatuaren jazarpena ere pairatu zituzten.

Larrakoetxeko eskola eta Santiago irakaslea garai hartako errepresioaren adibide dira eta gaur egun ezinbestekoa da herriak garai hartan sufritutakoa gogoratzea, etorkizuna eraikitzeko eta bizitakoa ez ahazteko, historiari merezi duen garrantzia aitortuz.

Oharra: Herriko memoria historikoa berreskuratzeko asmoz eta unibertsitatean proposatutako proiektu bat osatzeko, Loiu Gerra Zibilean egondako gertakarien inguruko informazioa bilatzeari ekin nion. Horretarako, Iñaki Olabarrieta historiazalea elkarrizketatu nuen, eta haren bitartez 30eko hamarkadan Larrakoetxe auzoan egondako eskolaren eta eskolako irakaslearen inguruko memoria historikoa berreskuratzeko aukera izan dut.

a: Santiago bere ikasleekin; iturria: Iñaki Oلابarrieta



Fila de arriba y de izda. a dcha.: Santiago Rodríguez, Norberto Bidauzarraga, Sabino Gaztañaga, Iñaki Ibarlucea, José Bilbao, Cristobal Cañada, Prudencio Bilbao, Modesto Uruburu, Sabino Larrabeti, Federico Latorre, Vicente Begoña, Gregorio Bilbao y José Larrondo. 2.ª Fila: Tomás Ibarlucea, Jesús Aurrekoetxea, Ali Lopategui, Jesús Begoña, Sotero Bidauzarraga, Cirilo Astobieta, Vicente Ledesma, Doroteo Villalabeitia, Isidro Bolumburu, Eduardo Gamboa, Rafa Gamboa, Juan Bilbao, Perfecto Arteta y Juan Begoña. 3.ª Fila: Eduardo Larrondo, Víctor Sáez del Castillo, Faustino Abarrategui, Marcelo Abarrategui, Ignacio Urrutikoetxea, Dionisio Larrondo, Patxikin Astobieta, Agustín Aresti, Juantxu Gaztañaga, José Gaztañaga y José Luis Bolumburu. 4.ª Fila: José Arteagoitia, Julián Altonaga, Víctor Sustatxa, Luis Arteagoitia, Lázaro Bilbao, Juan Bilbao, Tomás Sertucha, Prudencio Sertucha, José María Moreno, Antolín Zamarripa, Pedro Gaztañaga y Patxiko Bilbao. (1934)

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Txorierriko biztanleria eta egoera soziolinguistikoaren bilakaera

Txorierrin 21.192 pertsona bizi gara, eta urterik urtera, astiro bada ere, kopurua handituz doa. Euskararen ezagutzari dagokionez, EUSTATen azken datuak 2016koak dira. Horien arabera, eta bakarrik bi urteko eta gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, euskaldunak Txorierrin 10.161 dira (% 49,85), ia euskaldunak 3.982 (% 19,53) eta erdaldunak 6.092 (% 29,89). Bistan denez, euskaldun kopurua ia populazioaren erdia da Txorierrin, eta ia euskaldunena, % 20. Datu onak dira aurreko neurketekin konparatuz gero, baina erabilera ez da datu horiei dagokiena. Beraz, etengabeko ahalegina egin beharko genuke esparru eta arlo guztietan euskaldun eta ia euskaldunen horiek euskaldun oso bihurtzeko.

Herria	Biztanleak 2020	2 urte eta gehiagokoak 2016	Euskaldunak 2016	%	Ia euskaldunak 2016	%	Erdaldunak 2016	%
Derio	6.569	6.462	2.598	40,20	1.384	21,42	2.480	38,38
Larrabetzu	2.052	1.972	1.501	76,11	238	12,07	233	11,82
Lezama	2.413	2.302	1.545	67,11	323	14,03	434	18,85
Loiu	2.311	2.232	1.106	49,55	482	21,59	644	28,85
Sondika	4.534	4.338	1.898	43,75	921	21,23	1.370	31,58
Zamudio	3.313	3.078	1.513	49,16	634	20,60	931	30,25
Txorierrri	21.192	20.384	10.161	49,85	3.982	19,53	6.092	29,89

Oharra: Biztanleen kopuruena 2020ko datuak dira. Bi urte eta gehiagokoak eta euskaldunak eta i -euskaldunak, ordea, 2016koak. Datuok EUSTATEko "Euskal AEko >=2 urteko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera" taulatik hartuak dira.

Azken 25 urteotan egon den bilakaera ikusteko hurrengo datuak atxikitzen ditugu:

1996ko datuak

Herria	Biztanleak	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak	Eusk + Ia-eusk	%
Derio	4.608	1.275	1.216	2.117	1.883	41
Larrabetzu	1.495	1.194	129	172	1.259	84
Lezama	2.024	1.428	298	298	1.577	78
Loiu	1.670	887	340	443	1.057	63
Sondika	3.521	1.205	894	1.422	1.652	47
Zamudio	3.014	1.438	472	1.104	1.674	56
Txorierrri	16.332	7.427	3.349	5.556	9.102	55,70

Oharra: Biztanleenak 1996ko datuak dira. Euskaldunenak ere 1996koak dira, baina 2 urte eta gehiagoko biztanleenak.

2011-2015eko datuak

Herria	Biztanleak	2urte eta gehiagokoak	Euskaldunak	%	Ia euskaldunak	%	Erdaldunak	%
Derio	6.375	5.725	1.939	33,87	1.673	29,22	2.113	36,91
Larrabetzu	2.056	1.902	1.352	71,08	329	17,30	221	11,62
Lezama	2.368	2.370	1.473	62,15	533	22,49	364	15,36
Loiu	2.311	2.348	1.078	45,91	668	28,45	602	25,64
Sondika	4.480	4.358	1.706	39,15	1.282	29,42	1.370	31,44
Zamudio	3.174	3.122	1.457	46,67	770	24,66	815	26,11
Txorierri	20.764	19.825	9.004	45,42	5.255	26,51	5.485	27,67

Oharra: Biztanleen kopuruak 2015eko datuak dira. Bi urte eta gehiagokoak eta euskaldunenak, ordea, 2.011koak.

Ondorioak

Populazioa 16.332 biztanletik 21.192 biztanlera igaro da eta euskaldunena 7.427 biztanletik 10.161 biztanlera.

UDA KO IKASTARO TRINKOAK
LabayruFundazioa

DERIOKO SEMINARIOAN
B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak **295 €**
Uztailaren 5etik 17ra

- * Aurretik sarrera-proba
- * Ikastaroa gairiduta, **HABE** azterketak (B2/C1) egiteko eskubidea
- * 16 urte betela

BILBON ere bai:

- Boluetary/C.Larreategin
- Ek.21-urt.3 | Uzt.5-17
- Mota guztiak (batua/bizic.)
- EusTET (euskara planak)

Matrikula zabalik (plaza mugatuak)
944 437 684 labayru@labayru.eus

LabayruFundazioa
www.labayru.eus

Lezama, Herrien Arteko Txapelketan nagusi



a: Guimar Gordon

Ekainaren 20an, Herrien Arteko Txapelketaren finala jokatu zen Bizkaia frontoian. Finalan Lezamako pilotariak aritu ziren Markinaren kontra, eta 2-1 nagusitu. Partiden aurretik, lezamarrak poz-pezik zeuden, hainbat urteren ostean finalera ailegatzea lortu zutelako, eta partiden ondoren poztasuna bikoitza izan da garaipenari esker.

“Azken finala 2007an jokatu genuen Getxon, Zaratomoren kontra, eta Bilbao da garai hartako pilotari-zerrendako pilotari bakarra”, azaldu digu Ander Castresana entrenatzaileak. “Lan handi-handia egin da garaipen hau lortzeko. Pilotariak denak emanda ibili dira eta hasieratik egin dute bat”. Castresanak botilero-lanak ere egin zituen, pilotariei laguntza eta babesa emanda.

Kadete kategorian, Uriartek eta Busketek osatutako bikoteak 22-10 irabazi zieten Egurrolari eta Calvori. “Oso ondo hasi ginen, baina partida gogortu zen. Markinako aurrelariak, Egurrolak, erremate asko egin ohi ditu, baina ez genion utzi; atzelariak ere, Calvok, ez zuen aukerarik eman. Uriartek partidari eutsi zion, berak ere kontrakoei aukerarik eman gabe, eta pilotakada luzeak eginez. Busketek, bestalde, pilotakada ederrak eta akatsak uztartu zituen”.



Gazte kategorian, berriz, ezin izan zen garaipena lortu. Iruretagoienak eta Zarragak 22-3 galdu zuten Ibarlozaren eta Egurrolaren aurka. "Zarragak, atzelariak, bere onena eman zuen, baina ezin izan zion Ibarlozaren bonbardaketari aurre egin. Iruretagoiena ere ahalegindu zen, baina ezin. Pronostikoa bete zen, tanto gehiago espero baziren ere".

Azkenik, Hormaetxek eta Bilbaok txapela lortu zuten Lezamarako, Agirremalloari eta Ibarlozari 22-21 irabazita. "Oso partida ederra izan zen, eta gogorra. Bilbao zalan-tzan ibili zen hasieran, eta Ibarzola gailendu zen. Hormaetxek eta Agirremalloak, bestalde, oso tanto ederrak egin zituzten". Oso partida parekatua izan zen, eta Markina-koak nagusitzen ziren arren, pilotari lezamarrek bikote bien arteko aldea gainditzea lortu, eta txapela eskuratu zuten Lezamarako.



Uritarra hirugarren mailara igo da

Ekainaren 20an Gadakaori 1-2 irabazi ostean, Uritarra Larrabetzuko futbol taldea hirugarren mailara igo da. Talde xumea da eta hura osatzen duten guztien artean erakutsi dute gauzak beste modu batean egin daitezkeela. Iban Garcia Uritarra taldearen presidentek adierazi duenez, "garaipen atzean ez dago bakarrik aurtengo lana, aurreko urteetan ere egindako lan itzela baizik. Taldearen inguruan dagoen sentimendua ere ezinbestekoa da, eta batasuna. Horiek guztiek benetako taldea izatea egiten dute".

Garcia oso pozik azaldu da taldearen igoerarekin eta azpimarratu du herritar guztiek, eta bereziki gaztetxoek, Uritarrari erakusten dioten babesa eta atxikimendua. "Hunkitu egiten nau". Era berean, jokalariei meritua nabarmendu du. "Izan ere, aurten ez dute ezta txanpon ere bat kobratu. Horrek adierazten du gauzak beste modu batean atera ahal direla aurrera eta gurera ez dela diru bila etortzen, baizik eta lantzen ditugun balioak direla eta".



a: Joxe Mari Lekerika

TOMAS HERRAN

LIBRERIA SONDIKA (SONDIKA)

Liburu-denda duela sei urte hartu zuen. Pandemiaren hasiera-hasieratik izan da zabalik, "funtsezko denda ginelako", eta egoerari ahal izan zuen moduan egin zion aurre. "Ez genuen ezta maskararik ere". Salmontek behera egin dutela dio, "tabernetan eta ile-apaindegietan ezin delako egunkaririk edota aldizkaririk izan". Gainera, adineko askok utzi diote egunkaria erosteari. "Kutsatzeko beldur dira. Estatuan prentsaren aldeko kanpaina egin zen; Euskadin ez. Era berean, prentsa doan eskaintzen duten plataformak daude gaur egun". Aurrera kemenez egingo duela ziurtatu digu, eta espero du egoera laster hobetzea. "Ezinbestekoa da herritarrek denda txikien aldeko apustua egitea. Ea adinekoek beldurra gainditzen duten, eta datorren ikasturteko eskola-kanpaina dela-eta mugimendu handiagoa dagoen". Izan ere, neurri handi batean, liburu-dendari esker lortu du bizirautea. "Bakarrik prentsa eta aldizkariak salduz gero, itxi egin beharko nuen, ziur asko". Bonu-kanpainak ere onuragarriak izan dira negoziatorako.

**CONCHA ISPIZUA**

TOLDOS TXORIERRI (ZAMUDIO)

Hiru langile dira eta 20 urte bete dira negozioa Zamudion zabaldu zutela. "Egia esan, lan handia dugu erabateko konfinamendua amaitu zenetik. Izan ere, ordu gehiago ematen ditugu etxean eta jendeak eroso sentitu nahi du bertan; esaterako, terrazan toldoa ipinita, kafea edo aperitiboa lasai hartu ahal izateko". Azaldu digunez, eskaera hain da handia, ezen horniketa-arazoak baitituzte. "Olanak, motorrak, automatismoak... falta dira, ez dagoelako lehengairik eskaerari erantzuteko". Bere esanetan, olanek bizi-kalitatea hobetzen dute eta, bestalde, bilakera handia izan dute. "Konforta ekartzeaz gainera, ingurumena purifikatzen laguntzen duten olanak daude; beroa kendu ez ezik, argia pasatzen uzten dutenak... Halaber, mekanismo erabat domotizatuta egon daiteke, eta guk edozein gailu inteligentetik edo mugikorretatik kontrolatu dezakegu". Lanez gainezka dabilta, eta datozen hila-beteetan ere horrela jarraitzea espero dute.

Zu Argazkilari

Zure herriko txokorik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hilero argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.




Eder Larramendi (Zamudio)




Esti Odriozola (Larrabetzu)



Amaia García (Zamudio)



Irene Diaz (Derio)



Lexuri Barrenetxea (Larrabetzu)

Asun berdea

t:Txiribita

Ohikoena *urtica dioica* edo asuna eta *urtica urens* edo asunbeltz dira. Batzuetan elkarrekin hazten dira. Hesietan ikusi ditzaiegu, larreetan, belardietan eta ongarritutako soro hezeetan. Hostoak eta kimu samurrak loraketa baino lehen batu behar dira, eskularruak erabilia. Berehala erabiltzen ez badugu, gerizpean sikatzen ipini behar dugu, eta leku lehor batean gorde.

Ezaugarri dietetikoak:

-Proteinatan aberatsa da, gatz mineraltan, kaltzioan, burdinan, fosforoan eta A eta C bitaminatan.

-Arazgarria da eta mineralak ematen dizkigu.

-Apu bat libragarria ere bada.

Sukaldean:

-Biak jaten dira, asuna zein asunbeltza; azken hori finagoa da.

-Sukaldean egiten direnean uzten diote min egoteari, edo batu eta handik ordu-betera gutxi gorabehera.

-Hostoak barazkiak bezala prestatu daitezke: frijituta, nahasietan, zopetan, gisatuetan...

-Tenpura edo arrautza-irinetan egin da, hosto handiak gozo-gozo daude.

-Asunari dagokionez, bakarrik kimuak eta hosto-txorteen gabeko hostoak jaten dira. Hosto handiak gutxienez 3-5 minutuan egosi behar dira.

-Asunbeltzari dagokionez, bestalde, zurtoinak ere jaten dira. Minutu bi baino gutxiagoan egiten dira.

Erabilera sendagarriak (kanpokoak):

-Artritis arintzen du, aknea eta azalaren alergiak. Kanpoko zauriak eta hanturak sendotzen ditu. Esandako gaitzetarako, asunezko infusioz* bustitako zapi edo oihal fin bat ipini daiteke kaltetutako eremuan 20 minutuan. Hurrengo pomada hau ere egin daiteke:

Eltze batean eta su motelean, litro bat oliba-olio birjina estra eta aurretik zatitutako 3-4 asun-eskukada berotuko dugu ordu-bete (asuna siku badago, 300 g; freskoa bada, bikoitza). Oso garrantzitsua da olio irakiten ez uztea, landarearen ezaugarriak galdu ez daitezke. Sutatik kendu, eta astebetean izango dugu jalkitzen. Likidoa iragaziko dugu, eta 100-150 g erleen argi-

Belarrak eta landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezke; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturalan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

zaria gehitu (zenbat eta argizari gehiago, hainbat eta sendoagoa). Marian berotuko dugu, harik eta argizaria desegiten den arte. Nahasia beirazko flasko garbietara botako dugu, solidotu dadin. Pomada lesioa dugun eremuan ezarriko dugu.

Ortuan

Bere laborantzak lurra hobetzen du, burdina eta kaltzioa mugitzen ditu eta oso egokia da ongariak egiteko. Tomateak landatuko diren zuloetan asun txikitua ipintzea gomendatzen da.

*Asun-irakina: 500 g asun bilduko ditugu, sustrairik gabe. Bost litro ur dituen ontzi batean sartu, eta han 10-15 egunean izango dugu; egunero eragingo dugu. Ura ilunduz joango da, eta kiratsa botako du: hori hartitzen dagoen seinalea da. Burbuilarik ez dagoenean, likidoa iragazi eta

botilaratuko dugu.

Lurrean erabiltzeko, litro bat erauzkin bederlatzi litro uretan diluituko dugu. Hazitegiak eta landareak ureztatzeko erabili ahal dugu. Erauzkinak ezaugarri onuragarri asko ditu: intsektizida naturala da, landareen defentsa-gaitasuna indartzen du, eta haien hazkundera suspertu.

Kontraindikazioak

Haurdun daudenean ez dute lehen hiru hilabete erabili behar. Pertsona batzuek alergia izan diezaioke landareari. Eskularruak jantzita batzea gomendatzen da.

Bitxikeriak

Erromatarrek urtika deitu zioten -esania: erre- bere ileek azalean eragiten duten azkura dela eta. Penintsulan eta Balear Uharteetan, bost asun-espezia daude.



Ganbara Gizarte Irratia, parte-hartzailea

t:Joanes Camara eta Amaia Ibarrondo

Gure zerbitzuetako erabiltzaileak artatuz gain, PAI Bitartean-en asmoa da komunitatea indartzen laguntzea eta eskaintzea zerbitzu honetan dinamika komunitario bat sortu ahal izatea. Dinamika hori osatuko da zerbitzuaren beraren eta bertan parte hartzen duten guztien eta Txorierri osoko pertsonen, taldeen eta erakundeen artean.

Helburuari heltzeko, komunitate-irradi bat dugu: Ganbara Gizarte Irratia. Hasieran, irratia Gamiz-Fikako egoitzan ipini zen zerbitzuetako erabiltzaileentzako akuilua izateko eta komunitatean parte hartzea anima zitezten. Urtearen hasieratik, hala ere, irratia Derioko eguneko zentroan dago eta, filosofia berberari jarraituta, helburu hau du: pertsonak hurbiltzeko tresna izatea, hau da, topagune bat zeinetan Txorierriko biztanleek, elkarteek eta taldeek parte hartu ahal baitute komunitateari ekarpena egiten dioten edukiak diseinatuz eta garatuz.

Helburua da topagunea izatea, zeinetan partaideek komunitateari ekarpena egiten dioten edukiak garatzen baitute

Gaur egun, Ganbara Gizarte Irratiaren saioak eguenetan eta barikuetan egiten dira. PAI Bitartean zerbitzuaren erabiltzaileek hartzen dute parte saioetan, eta haiekin batera edozein aritu daiteke: baldintza bakarra da hainbat gairi buruzko saioak diseinatzeko eta grabatzeko gogoia izatea. Irratsaioak *podcast* moduan entzundu daitezke Soundcloud plataforman, Emaus Gizarte Fundazioak bertan duen gunea hain zuzen.

Egitasmoa 2019. urtearen erdialdean ipini zen martxan eta handik hona pertsona, elkarte eta erakunde asko etorri dira irratiara, hala nola Toti Martinez de



Lezea, Iñigito Txapelpunk, EHuko ikasleak eta ACAMBI elkarteak. Ganbara Gizarte Irratiaren saio nagusiak hauek dira: *Departures*, hainbat herrialderi eta kulturari buruzkoa; *El punk no ha muerto*, zeinetan musika-estilo horretako taldeez aritzen baita; *Ganbarako intxaurrak*, gaurkotasuneko albisteen eta beste gai interesgarri batzuen gainekoa; *Radio radical*, edozein gai erradikali buruz hitz egiteko; eta *Historias cuerdas para gente loca*, inprobisazioa dena eta zeinean imajinarioak lekua baitu. Saioetan ezagutza-ekarpen handia egiten dute gure zentroko erabiltzaileek zein kanpoko lagunek.

Hitza

Bestalde, eta lekua hobetuz joateko, Irola Irratiaren (107.5 FM) lagun laguntza izan dugu. Hura Bilboko irrati askea da eta, ekipamendu teknikoak erabiltzen tratatzeaz gainera, asteko programazioan tartea utzi digute Ganbara Gizarte Irratiaren edukiak zabaltzeko (eguenetan, 14:00etan; zapatuetan, 15:00etan).

Irratiari lotutako esperientzia hau komunitateko eragileak elkartzeko gunea da, eta, era berean, oso tresna baliagarria da irratia talde egonkorreko pertsonen komunikazio-gaitasunak eta partaidetza-lana lantzeko. Oso esperientzia aberasgarria da eta gaur egun arte oso balorazio positiboa egin dute bai parte-hartzaileek, bai kolaboratzaileek.



Tresna baliagarria da irratia talde egonkorreko pertsonen komunikazio-gaitasunak eta partaidetza-lana lantzeko

Laburbilduz, Ganbara Gizarte Irratiak etorkizun handia du, hitza ematen dio edozein herritarri eta komunitate-erabiltzaileari sustatzen du. Hortaz, parte hartu nahi baduzu, ipini zaitez gurekin harremanetan: atsegin handiz emango dizugu hitza, nahi duzuna adierazi dezazun.

Telefonoa: 747 493 270

Harremanetarako: Joanes Camara.

Identitate digitala



t: Xabier Díaz

Webgune batzuek aukera ematen digute hauetako baten bidez identifikatzeko: Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft (GAFAM). Sare horietan erabiltzailerik badaukazu, prozesua asko sinplifikatzen da, eta dohainik, gainera. Dohainik? Noski ezetz! Orrialde honetan bertan aspaldi esan genuen bezala ⁽¹⁾, konpainia erraldoi horiek ez digute inoiz ezer musutruk eskaintzen. Euroa gabe, txanpona gure datuak dira: gure ohiturak zeintzuk diren, zer dugu atsegin, nondik mugitzen garen, zer erosten dugun... sarrera erraz bat erabiltzen dugun bakoitzean, enpresa aseeginen haletara bidaltzen da egiten, sortzen edo partekatzen dugun guztia: gure identitate digitala euren da.

Alternatiba da zerbitzu zein app bakoitzeko erabiltzaile eta pasahitz bat erabiltzea, zenbat zerbitzu eta app erabiltzen dugun adierazita. A zelako saltsa! Badira horiek guztiak gordetzen dituen pasahitz-zorro aplikazioak. Horiek erabiltzeko pasahitz sendo-sendo bat izango dugu eta zorroak berak gure edo app bakoitzari dagozkion erabiltzaile eta pasahitzak sartuko ditu.

Jakingo duzue, gure nortasun agiri nazionalak txip bat dauka, gure

burua identifikatzeko balio duena. Txip horrekin txartel irakurle edo NFC bidez konektatzen da, pasahitza sartu, eta listo, identifikatuta gaude. Euskadin Izenpe txartela dugu, erakundeen zenbait zerbitzutara sartzea ahalbidetzen diguna, adibidez, Osakidetzako gure osasun karpeta. Txartel horietan ez da beste informaziorik gordetzen, beraz gure identitate digitala babestuta dago. Eta ez hori bakarrik: baditugu NAN elektronikoari lotutako hainbat aplikazio ⁽²⁾ edo, Izenperen kasuan, BAKQ ⁽³⁾ koordenatuak, txartel barik ere sarean identifikatzeko.

Beraz, GAFAM horretatik aparte, badira gure nortasun digitala kudeatzeko bideak, eta gainera gure datuak salerosi barik; hala ere, zoritxarrez, orain arte zenbait erakunde publikoetan tramite gutxi batzuk egitera mugatu dira. Europar Batasunak hori aldatu nahi du.

App europarra

Ekainaren 1ean egindako adierazpen batean ⁽⁴⁾, von der Leyen presidentek segurtasuna, pribatasuna eta fidagarritasuna bermatuko dituen Europako identitate digital baten alde egin zuen. Bere hitzetan, "ezin da inor behartu egin nahi den zereginetarako beharrezkoa den informazioa baino gehiago ematera. Hotel batean erreserba bat egiteko, inork ez du nongoa naizen edo nire lagunak nortzuk diren jakin behar".

Horren harira, Europar Batasuna hasita da Europako herrialde guztietan erabilgarria izango den gure identitate digitala kudeatzeko aplikazioa garatzen ⁽⁵⁾. Erakunde publikoetako tramiteak egiteko erabili ahalko da, webguneetan identifikatzeko, pasahitzak kudeatzeko... Baita diru-zorro birtual moduan ere. Eta garrantzitsuenak: ez du inorekin partekatuko egindako ordainketak, zein tramite egin dugun edo nondik ibili garen... eta kasu bakoitzean, behar-beharrezkoa den informazioa baino ez du erabiliko.

Aplikazioa frogatzen hasi da eta asmoa da hura 2022rako zabaltea. Orain, erronka izango da erakunde publikoak ez diren gure edo aplikazioetara zabaltea.

(1) Hegaz doaz gure datuak, Aikor, Xabier Díaz, 2017-07-10, <https://labur.eus/identitate1>

(2) FNMT-k garatutako NAN elektronikoarekin lotutako aplikazioak <https://labur.eus/identitate2>

(3) BakQ, herritarrentzako identifikazio elektronikoaren "orotariko giltza" <https://labur.eus/identitate4>

(4) President von der Leyen's speech at the high-level opening session of the 2021 Digital Assembly, "Leading the Digital Decade", 2021eko ekainaren 1a <https://labur.eus/identitate5>

(5) What can eID do for You?, CEF Digital Connecting Europe, <https://labur.eus/identitate6>

Txorierrri institutua: DBH eta Batxilerra

Asun Basaras irakasleari elkarrizketa

t: Juan Luis Goikoetxea

Derio errepidez igarotzean, lantegi aldera baino ikastetxe-gunera begiratzen baduzu, bide ondoan Txorierrri Institutua ikusiko duzu, eta bertan eraikin berria, gutxienez, 12 urte beranduago datorrena. Hala ere, betor!

Ikastetxe barrura sartzen bazara, Asun Basaras aurkituko duzu erantzuteko prest. Dioenez, 1983an sartu zen institutua, eta aurten alde egingo du. Garai hartan, lau kurtso BUPen, 28 irakasle ziren; gaur haietarik bat ere ez da gelditzen; belaunaldi aldaketa osoa gertatu da. Edozelan ere, gaur egun ez da indarrean orduko batxilerrik, gaurko egitura DBHko lau kurtso eta Batxilerreko bi dira.

Lehenengo irakasleria eta oraingoa erkatzeko eskaturik, hauxe erantzuten du Asunek -diplomazia pitin bategaz-: "Etorri diren irakasleak "gogoz etorri dira"; "inplikatu egiten dira", eta "euskararen erabilera osasuntsua dute".

Asuni Batxilerraz iritzi profesionala emateko eskatu diogunean, berehala erantzun du: "Batxilergora heltzen direnak bide onetik doaz, ederto, baina Txorierrri Institutuko Batxilerra indartu beharra dago. Estatistikek adierazten digutenez, ikasle kopuru handia kanpora doa DBH bukatzean. Ostera, ikastetxe kontzertuetan, gutxi egiten du alde. Guk Lanbide Heziketa publikoa behar dugu, erdi mailako eta goi mailako zikloak. Honetan Institutua hankamotz geratu da".

Asun Historian eta Geografian aditua dela dakigunez, Euskal Herriko historia eta geografia nahiko ikasten den galde-tuta erantzun digu gutxi irakasten dela; DBHko 1. mailan ezer ez; 4. DBHn eta 2.

Batxilerran gehiago. Esaterako: foruak, 2. Errepublika Euskal Herrian, eta abar.

Zoritxarrez, gainditu ditugu 1.500 karaktere, Asun, amaitu egin behar dugu.

Lastimagarria, hainbeste jakin, eta hain gutxi azaldu ahal izatea. Mila esker. Ikasle izan dituzun neska-mutilak itzel poztuko dira institututik at zeurekin topo egitean.



TURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etabidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com



GALAISA
Etengabeko
ordulogia
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3. SONDIKA

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Gehi-ikusiak, erakutsen
Auzokoen komunitateak
Mantentze garbi-ikusiak
Itxigoki eta lokalak
Otrua emarietako garbiketarako
Bastoiak
Zabor bilketa



Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Etxeko sukaldaritza

Orburuak saltsa berdean
(txirlekin)

t: Maite Lekerika / a: alcachofa.es

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bat orburu (izoztuak)
- 500 g txirla
- Kipula bat
- 3 berakatz-ale
- Perrexila
- Oliba-orioa
- Gatza
- Irina
- Ura (zainzuriena bada, hobe)
- koilarakada bat sagar-ozpin

Prestetako era:

Uretara gatz apur bat bota, eta orburuak 15 minutu inguru egosiko ditugu. Ura gorde egingo dugu. Bestalde, kipula eta berakatzak xerra fin-finetan zatituko ditugu, eta olio-zurrusta batean erregosi, su eztian. Eginda dagoenean, txirlak eta perrexila (txikitua) gehituko ditugu, irin apur bat, eta eragin egingo dugu. Ondoren, orburuak gehituko ditugu, ur apur bat (orburuena eta zainzuriena), eta su eztian izango dugu harik eta saltsa loditzen den arte. Eginda dagoenean, orburuak azpil batean ipiniko ditugu, eta saltsa gainetik botako diegu.

Angurritzko izotz-
edaria fruitu
gorriekin**Osagaiak (4 lagunentzako):**

- 1/2 angurri
- 150 g fruitu gorri
- 50 ml andere-mahatsen jarabea edo granadina
- Koilarakada bat ahabia beltz-marmelada
- 3 gelatina-orri
- 80 g azukre beltz
- 80 ml Oporto ardo
- Ura

Prestatzeko era:

Angurria zatitu, eta atalak ontzi batean ipiniko ditugu andere-mahatsen jarabekin eta azukre beltzarekin batera. Irabiatu egingo dugu, eta gorde. Gelatina-orriak ur hotzean ipiniko dugu, beretzen, bigundu arte. Sutan lapiko bat ipiniko dugu eta gelatina hara botako dugu. Desegiten direnean, angurri-ura gehituko dugu. Nahasia erretilu batera bota, eta hozkailura sartuko dugu ordubetez. Sardexka erabilia arraspaturiko dugu, izotz-edariaren testura hartzen duen arte.

Ontzi batean nahasiko ditugu ahabia-marmelada, ardoa eta fruitu gorriak. Hogeita hamar minutuan izango dugu beratzen. Izotz-edaria kopetan banatuko dugu, eta gainean fruitu gorriak ipiniko ditugu.

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai leaguru Facebooken.

elekma

URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOKIAK

Leherengo markak • Preziarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorien etorbidea, 25-3.Nº 48180 Leiz.
T. 944 539 232
www.elekma.es

**TABERNA
GAZTEDEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Rizkalko Txakolina
Dizaintza eta abar orjinala

Bizkaiko Txakolina

Goitziolza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Sekula ez liokete euli bati hagalik kenduko (Txalaparta), Slavenka Drakulic
- Errolanen elezaharra (Erein), Juan Luis Landa Hernandez
- Ene iratxoekin solasean (Pamiela), Bixente Serrano Izko
- Osaba Joxeren sotoko kutxan (Dakit argitaldaria), Marisa Arruabarrena
- Solosaldua Sizilian (Igela), Elio Vittorini

LITERATURA: UMEAK

- Katixa dorre magikoan (txalaparta), Antton Kazabon Amigorena
- Ahizpak (Dakit argitaldaria), Juan Pousibet
- Erleak eta lur-zizareak (Tarttalo), Florence Thinar
- Katta. adarbakarra (Elkar), Miren Agur Meabe Plaza
- Ni neu naiz! (Mezulari), Paula Carbonell

Sudokua

	3	2		5	4			
		5		1				
	2					5	8	
9	8		2	3				1
	5	7	9					2
7			1	2			3	
	9			4			2	

4	1	8	7	6	5	3	9	2
9	2	7	3	4	8	1	6	5
5	3	6	9	2	1	8	4	7
2	4	3	8	9	6	7	5	1
1	7	9	5	3	2	4	8	6
6	8	5	1	7	4	9	2	3
3	5	4	2	8	7	6	1	9
8	6	2	6	1	3	5	7	4
7	9	1	4	5	6	2	3	8

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburribata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheka
Zamudio
94 4520419

Txiribo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI
CAFE-BAR

Askotariko pintxoak - Plater kombinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Erakusketak

Zamudio

> "Umeen herriak". Uztailaren 1etik 16ra, kiroldegian.

Gazteentzako ekintzak

Derio

> Ginkana (uztailak 7), orientazioa eta Big SUP (uztailak 14) eta abentura-parkea (uztailak 21). Izena ematea: uztailaren 1era arte www.deriokoudala.net webgunean.

Zamudio

> Espeleologia, Mañarian (uztailak 1); Done Jakue bidea: Zamudio – Portugaleta (uztailak 2); parapentea, Sopelan (uztailak 5 eta 6); Saldropo-irteera (uztailak 7); Hontza Extrem Abentura, Otxandion (uztailak 8 eta 9); Gorbeira irteera (uztailak 12); Big SUP, Ibarrangelun (uztailak 13); Kars + Uribarri Ganbora (uztailak 14 eta 15); Aizkorri irteera (uztailak 16); arroila-jaitsiera, Karrantzan (uztailak 19, 20 eta 22); Ogoñora irteera (uztailak 21); udako bazkari-jaia + uretako puzgarria (uztailak 23). Gaztestazioak antolatua.



Ikuskizunak

Derio

> *Kranston ikastetxea: munstroen eskola.* Uztailaren 2an, 21:00etan, Lainomendi plazan. Udako zinema.



> *Jumanji.* Uztailaren 10ean, 18:30ean, institutuko aparkalekuan. Autozinema.

> *Bohemian Rhapsody.* Uztailaren 10ean, 21:30ean, institutuko aparkalekuan. Autozinema.



Jaiak

Derio

> Santiago. Uztailaren 25ean, txistulariak, 11:00etan; jotak eta rantxerak, 19:00etan, eskolan.

> San Inazio. Uztailaren 31n, txistulariak, 11:00etan.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu
naturalak

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zerbitzu Berrak
Logopedia
Podologia
Kizmasajeta
clinica dental **ZAINDUZ** hartz klinika
Txoriem iworbia, 9 - Lonja | Artea eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

HARATEGIA ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

sarraila-denda Txoriem
AKTIUK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITAGINTZAN
946 035 663
625 100 800
info@sarraileriatxoriem.com
www.sarraileriatxoriem.com
Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lonja
48160 Derio

Alaia fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua Bertoko produktuak
Telleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitetz berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

Arteaga auzoa - Zamudio

Azken garaje
partzelen salmenta



Promozio amaitua



13.890 €-tik aurrera + BEZ

Tel. 94 674 19 79

iturburu@iturburu-inmobiliaria.com

www.iturburu-inmobiliaria.com



GRUPO ARRASATE

TALDEA

gestión Inmobiliaria kudeaketa

Tel. 94 679 03 81

info@grupoarrasate.com

www.grupoarrasate.com


Urbe
RESTAURANTE

**OILASKO ERREAK,
BERTON JATEKO
EDO ERAMATEKO**

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN!

MAHAIAN ZERBITZATZEN
DIZUGU, BAINA ZUK
GARAGARDOTEGIKO PREZIOA
ORDAINTZEN DUZU!



Zarandona kalea 5
48160 Derio - Bizkaia
(Holiday Inn hoteleko instalazioetan)

APARKALEKU PRIBATUA



94 454 09 86



www.restauranteurbe.com



info@restauranteurbe.com



@urbe.restaurante